

ARRASATE PRESS

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2002ko apirilaren 12a / 580. zenbakia

ipuinez 1 puin

Haur literaturaren aretoa

Apirilaren 3tik 30era,
Monterrongo liburutegian



ORAIN ETA HEMEN: KULTURA ETXEKO PROIEKTUA/6 • KIROLA: CORCUERAK PODIUMA HYUNDAI KOPAN/12



Oraindik ez du GOIENASPORT ikusi.


Bailarako kirola astero begi bistan.

GOIENASPORT

- Astelehenetan, 20:30ean
- Errepikapena martitzenetan, 14:30ean
- Aurkezlea: **Julen Iriondo**



KALEINKESTA/ Ze pentsetan jatzu Israelen eta Palestinaren arteko konfliktue? Konponbiderik?



MATEO BAILEZ
Pensionistie



TERE ETXEBARRIA
Etxekoandrie



JORDAN BARKERO
Ikaslie



ALEXANDER URIA
Ikaslie



ARRATE LANDA
Langillie



JOSEFA ESTRELLA
Langillie

Herrialde bakotxari toketan jakona emun biherko jako. Ezin leikena onartu da konponbide bat lortu biherren bizi dana burrukan pasetie. Holan ezin da ezer be konpondu.

Negargarrixe dala uste dot. Bateron batek hartu biherko leuke neurriren bat. Konponbidie ez dakit zein dan, baiñe Sharon hori mapatik izkutatu egin biherko leukie.

Kulpie israeldarrena da, palestinuen lurraldietan sartu dielako. Eurena da erantzukizuna. Konponbidia gatxe da, baiñe berba egitten konponketan die gauzak, hortaz...

Argi dago zapalketa haundixe egitten dabitzela, eta Europako Batasunek ezer be ez egittie ez dot entendiduten. Argi esan biher jakue israeldarrei holan ezin dauela jarraitu.

Pentsetan dot israeldarrak nahi dauen dana egitten dabitzela, eta palestinuek ez daukiela inungo irtenbiderik. Konponbidie lortzeko, negoziaziñue biherrezkue izengo da.

Oso tristie dala uste dot, eta tartien jente asko dabil sufriduten. Agintie daukienak ez die kapazak ezer egitteko, eta horrek tristurie emuten dust. Ez dakit konponbiderik dauen.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK EDUKIONTZIEKIN OHITU BARIK Badirudi hainbat arrasatear oraindik ez direla edukiontzia erabiltzera ohitu edo ez dituztela erabili gura. Sarri, zabor-poltsak edukiontzien ondoan aurkitzen ditugu, eta batzuetan, poltsak egunak pasatu dituzte edukiontzikanpoan, inork jaso barik. Horregatik, hainbat herritar kexati azaldu da, poltsa horien kiratsa dela-eta haserre.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /8

KIROLA /14

GAZTEAK /16

Zalantzak Gelman

Gelmako langileak kezkatuta daude azkenaldian euren lanpostuen etorkizunarekin.

II. Arrasate Hiria Txapelketa

Gaur, II. Arrasate Hiria Xake Txapelketa hasiko da. Partidak egubakoitzero jokatuko dituzte.

Gaztetxearen XI. urteurrena

Arrasateko gaztetxeak hamaika urte bete ditu, eta egitarau polita prestatu dute gazteek.

ASTEKODATUA

450

AUTO DAUDE MAKATZENA AUZOAN ERROLDATUTA

Makatzinari buruz egindako txosten batek aditzera eman duenez, auzo horretan 450 auto daude erroldatuta, eta 746 auzokide: auto bi etxebizitza bakoitzeko. Arrazoa auzoaren aldapa ei da.

OHARRA

Joan den eguaztengan, apirilaren 10ean, zozketa berezia izan genuen Arrasate Irratian. Lau astean, **ARRASATE PRESS**en bitartez, **Uarkape jatetxean afari goxo bat irabazteko aukera izan da. Horrez gain, Uarkape jatetxean bertan afari baten zozketan parte hartzeko aukera ere izan da. 37 lagunek ekarri dute txartela ARRASATE PRESSera, eta 87 lagunek eraman dute txartela Uarkape jatetxera. Aitziber Aranburuzabalak eta Iker Barandiaranek Arrasate Irratian egindako zozketan, Xabier Zabala Sagasta izan zen ARRASATE PRESSko txartelen irabazlea, eta Joseba Zabala Elortza Uarkape jatetxeko txartelaren irabazlea.**

Zorionak, bioi, eta ondo afaldu!

HERRITARRENBERBAK/ Ander Elortondo



Zure ardurie, bestiok ezin egin

Hasieratik garbi geratu daixela, hemen ardurak komentatzen ditudala. Errudun eta erantzuliek topetan inkisidore eta aurrera ez egiteko aitzaki bile dabilzanan lana izaten da. Nire helburu bakarra euskaldunengan hausnarketa eragittie da.

Gaur egun, euskaraz ez egitteko aitzakirik zabalduena: "Beste honek ez daki eta...". Garbi dau ez dakixenakin ezin dala egin, baina zergatik ez daki? Arrasaten euskara ikastie samurre eta merkie da. Denboriek erakutsi dau, 250 klase ordurekin ixte edozeinek ulertzen dauela euskaraz. Eta hori neikue da badakigunok euskaraz egin daigun. Beraz euskara ikastie zaila dala, mito interesatu bat da. Euskaraz ikasteko klasiak orduko 0,91€ ordaindu behar die, frantses, ingelesa eta bestiek aldiz 3€ tik gora ordaintzen die. Ez ahaztu dirulaguntzak be badazela euskara ikasteko. Arrasaten euskaraz ez dakixen gehixenek,

ez dakixe ez daueilako ikasi gure.

Ez dau ikusi gure batez be ez dauielako beharrik sometan. Euskaldunok ez douelako euskararik egiten. Ni ez naz inor beste inori zer egin behar dauen esateko, baina bestiek egindakue nik egin gure dotenai mugak jartzen dotsenien eskubide dana dauket, nik egin gure dotena aldarrikatzeko. Beraz nik euskaraz egin ahal izateko, ez dakixenak gutxienez ulermen mailara ikasi daixela.

Euskalduna euskara duena da? Burmunean eukittiak niri ez dust balixo, ahotan eduki behar da, lanien, etxien eta kalien. Euskaldune euskaraz bizi dana da. Arrasatear gehixenak ez die erdi euskaldun izatera heltzen (egun erdixe euskaraz bizitzera). Zenbaterainoko euskaldun garen da, gure ardurie. Euskaldunon ardurie euskaraz egitie da, aitzakia barik, besteja ez dakixenak ez dau inoiz ikasiko eta.

"Euskara ikastie zaila dala, mito interesatu bat besterik ez da"

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran
ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai
MAKETAZIOA
Alex Azkarate
ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martínez
Imanol Elortza
ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren
LEGE-GORDAILUA
55-1124/88
ISSN
0214-4654
TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 12
Amezua. Santa Marina 32 943 79 09 74

ZAPATUA, 13
Zabala. Zarugalde 42. 943 77 16 30

DOMEKA, 14
Ruiz. Maala 31. 943 79 14 09

ASTELEHENA, 15
Español. Araba etorb. 17. 943 79 18 65

MARTITZENA, 16
Azkoaga. Ferrerías 1. 943 79 15 15

EGUAZTENA, 17
Azkoaga. Iturriotz. 943 79 79 99

EGUENA, 18
Corcuera. M. Aranbarri. 943 79 22 26

TELEFONO JAKINGARRIAK

ERIETXEAK
Arrasateko Eskualde Ospitalea. 943 03 53 00
Igalatoria. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak. 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11

LARRIALDIAK
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

ANBULATORIOAK
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. egun osoa

Arrasate
Astelehenetik egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara

- Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
- Espezialitateak 943 03 53 11
- Ikuskatzailea. 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

ANBULANTZIAK
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

ERTZAINZAK
Arrasate 943 79 71 99

SUHILTZAILEAK
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

MATXURAK
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa. 900 40 05 23
. 943 79 78 44

GARRAIOAK
Taxiak 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuaren egoitza 943 79 81 57

MONTEIRON LIBURUTEGIA
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	San Andres eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 10:00 (elebiduna) 11:00 (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) 13:00 (gaztelaniaz)	San Frantzisko eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz) 19:00 (gaztelaniaz)	Santa Teresa eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 11:00 San Isidron (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz)
Uribarri parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 11:30 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)	Santa Marinako eliza Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz) Domeka 12:00 (gaztelaniaz)		

OHARRAK

UMEENDAKO IPUINAK
Apirilaren 16an, martitzenean, Rai Buenok bost eta zortzi urte arteko umeendako ipuinak kontatuko ditu. 17:00etan, Santa Marinako auzo-liburutegian eta 18:30ean, Monterronen.

AHOZKOTASUNA BERBAGAI
Martitzenean, 18:30ean, Monterronen, Andoni Egañak ahozkotasunaz berba egingo du. Institutuak antolatu du.

GURASOENDAKO BERBALDIA
Martitzenean, 18:00etan, Erguin Herri Eskolan, *Etxean zelan landu garapen emozionala* aztertuko dute.

KONTSUMITZAILEAREN ESKOLA
Eroskiko Batzorde Kontsumeristak berbaldia antolatu ditu Monterronen: apirilaren 16an, 16:30ean, *Etxeko oinarriko lehen sorospinak* berbaldia egingo du Alberto Rodríguez medikuak; 17an, Raquel Barcenilla psikologoak *Nola ikasi haserretu gabe eztabaidatzen*.

TAILA IKASTAROA
Tailaginen Elkarteak hasierako mailako taila ikastarora antolatu du apirilaren 23tik aurrera. Deitu, gaez, 943 79 40 97 (Felix) edo 943 79 77 57 (Jose Mari) telefonoetara.

AEDrenAGENDA

AED-REN LAN-POLTSA
AEDk lan-poltsa zabaldu behar du, AEDn lan egin gura baduzu, bidali curriculum Pablo Uranga 6ra.

AED-REN AUZOLANDEGIAK
AEDk auzolandegiak antolatu gura ditu udan. Baionako AEK konpontzea dute helburu, eta lantaldea osatu gura dute, hara joateko.

URBANOENORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN


Hiesaren aurkako taldea eratu zuten

Herrian eta ibarrean lan egiteko asmoz, hiesaren aurkako taldea eratu zuten Arrasaten. Taldeak helburu nagusi bi zehaztu zituen: bata, hiesaren errealitateaz jabetzea eragitea; eta bestea, prebentzioa. Ez zeukaten egoitza propiorik, baina bai, ordea, hiesaren aurka lan egiteko gogoa.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Pendiza"



GORKA ORTEGA

Aldapa handia, zeharo bertikala izan gabe; desnibela bertikala bada, **muga edo muna.**
-Pendizian eindda dare Plazentziako basarri geixienak.
Eztauke solo laurik, dana da pendiza.

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Kortazar eta Trojaola Saharan izan dira

Saharan, errefuxiatuen kanpamentuetan, izan dira Aste Santuan Dorleta Kortazar eta Larraitz Trojaola. Emakumeen Kontseiluak gonbidatuta joan dira, eta han bizi izandakoa kontatuko digute Arrasate Irratian. Zapatuan eta domekan errepikatuko dugu hizketaldi hori *Asteko Elkarrizketak* tartean. Bestalde, Jon Iñaki Lasarekin eta Nora Isasirekin izan gara, txakurren gainean berbetan: txakurrek lotuta joan behar dute? Horretaz mintzatu ziren.

Almengo ikasleak 'Iluntzean Berriketan'

Saioa estreinatuko du Arrasate Irratiak: *Iluntzean Berriketan*. Almengo ikasleak izango dira saioko gidariak. Martitzenero eta eguenero eskainiko dizuegu saioa, 20:30etik aurrera. Gazteek egindako tartea izango da *Iluntzean Berriketan*, eta zelan ez, gazteei interesatzen zaizkien gaiak izango dira nagusi; denera, 12 saio egingo ditugu. Astelehenean, Alex Ubago kantari donostiarrak diskoa aurkeztuko digu, goizeko hamaikak aldera.

HAUGIROA!

MINIMOA
Egubakoitza, 5 **2°C**

MAXIMOA
Astelehena, 8 **20°C**

ASTEKO EURIA (l/m²) **45,1 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 3	9°C	6°C	31,4 l/m ²
Eguena, 4	12°C	7°C	3,9 l/m ²
Egubakoitza, 5	20°C	2°C	4,1 l/m ²
Zapatua, 6	17°C	9°C	2,3 l/m ²
Domeka, 7	20°C	5°C	- l/m ²
Astelehena, 8	20°C	6°C	2,2 l/m ²
Martitzena, 9	12°C	8°C	1,2 l/m ²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
09:00 Albistegia
09:30 Igo autobusera
14:00 Errepikapena

ASTELEHENA
21:00 MIR

MARTITZENA
20:30 Iluntzean berriketan
21:00 Hi bizi hadi

EGUAZTENA
21:00 Hitz eta pitz
22:00 Pottokatzen

EGUENA
20:30 Iluntzean berriketan
21:00 Gailurretik/Mikelenea

EGUBAKOITZA
20:00 Azkenberri.com
21:00 Draxtor
22:00 In session
23:50 Asteko elkarrizketak

ZAPATUA
10:00 Musika klasikoa
11:00 Asteko elkarrizketak
13:00 Hitz eta Pitz (errep.)
24:00 MIR (errep.)

DOMEKA
11:00 Asteko elkarrizketak
23:00 Mikelenea

ASTEABIHITZETAN

Egitamu Orokorra berriro ikusgai

Egitamu Orokorren egindako alegazioak jaso, aztertu eta erabaki eta gero, dokumentu horrek aldaketak izan ditu. Hori dela eta, dokumentu hori berriro ere jendaurrean dago, herritarrek ikusi eta gura badute, alegazioak aurkezteko.

Egitamu Orokorren gaineko dokumentu berriak lau plano eta hogeita bost fitxa ditu. Hori guztia Hirigintza Sailean dago. Ikusi gura duenak hara joan eta eskatzea besterik ez du.

Enpresen laguntza programa

Aurten bigarren aldiz, Udalak herriko enpresei diruz laguntzeko programa abian ipini du. Aurten, hamalau enpresak eskatu diote laguntza Udalari, eta horietatik, hamarri eman die baietza.

Guztira, hamasei lanpostu sortzeko laguntza emango du Udalak, eta ia 55 mila euro emango ditu horretarako. Orain, enpresen eta Udalaren arteko hitzarmenak sinatzen ari dira, eta gero, dirua jasotzen duten enpresen jarraipena egingo du Udalak, hiru urtez.

Familia Txokoa abian ipini guran

Ekin Emakumeak eta Txatxilipurdi taldeek Familia Txokoa abian ipini gura dute aurten. Oro har, gurasoak zein seme-alabak batzeko txokoa izango da, hain justu ere, gurasoek seme-alabei euskara transmitituko dietela ziurtatzeko.

Oraindik ez dute zehaztu non zabalduko duten Familia Txoko hori. Hori bai, bi elkarteek aurten lankidetzan egiteko duten xederik garrantzitsuena dela adierazi dute. Horrez gain, elkarte bakoitzak bere aldetik bestelako egitasmo batzuk ere jorratuko ditu: ludoteka berria Txatxilipurdik eta Ekinek osasunarekin lotutako zenbait ekimen.



Zaborraren problematika ezagutarazten

Zaborrari gabon, bizitzari egunon deritzon kanpaina abian da ibarreko ikastetxe guztietan joan den urtarrila ezker. Udalako Ingurugiro Eskolak eta Debagoieneko Mankomunitateak bultzatuta, birziklapena, zaborraren eboluzioa eta etorkizuneko egoera izan dituzte aztergai, besteak beste.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Karakola eta barea

Bidean oinetakoak apurtu ez bazaizkio, gaur helduko da Colin Powell Israelera, Sharon geldiarazteko asmoz-edo. Hori diot, Israelgo armadak pare bat aste daramatzalako Palestina inbaditzen. Bushek Powell delakoa bidaliko zuela iragarri zuen. Hala ere, AEBetakoak palestinarrak bizi duten egoeraz hain arduratuta daude, Powellek

berak Israelera heldu baino lehenago bidean ia aste bat igaroko duela. Oinez joango da, erromesa balitz bezala?

Izugarria da Israelgo gobernuaren egiten ari dena. Dagoeneko, aurrez, palestinarraren lurraldetasuna eta bere aurkariak diren guztiak behin eta berriro zapaltzeko gai izan bada ere, azken asteotan Palestinako lurraldeak inbaditzen ekin da,

hilketak eta atxiloketak axolagabeki eginda, eta ospitale, anbulantzia, kazetari, etxebizitza eta parean aurkitzen duen edozer suntsituta, gupida barik.

Errua ez da bakarrik Israelgo gobernuarena, AEBena baizik. Beste edozein herrialdeetako gobernuak izango balitz, Israel berehala bonbardeatuko luke. AEBek terrorismoaren argudioarekin Afganistan suntsitu zuten, eta Sharonen berdina egitea erabaki du. A ze para!

ASTEKOIRUDIA



ARRASATE PRESS

ANDER CORCUERA HYUNDAI KOPAKO LEHEN LASTERKETAN PODIUMEAN IZAN DA

Pilotu arrasatearrak ezin hobeto ekin du Hyundai Kopa. Arrasatearrak domekan lasterketa bi egin zituen. Lehenengoan zortzigarren iritsi zen helmugara eta bigarrenean sekulako lasterketa egin zuen: pilotu arrasatearra hirugarrena izan zen. Mondragoetarrak joan den urtean Clio Kopan har-

tu zuen esku, eta lasterketa onak egin bazituen ere, inoiz ez joan den asteburukoa modukoa. Aurten joan den urtean baino aurrekontu txikiagoa zeukanez, ezin izan du Clio Kopan parte hartu, eta Hyundai Kopan aritzea erabaki du. Badirudi txapelketa ona egin dezakeela Arrasateko pilotuak. /XABIER URZELAI

M
MEMESA

**Industria
hornidurak**

Tel. 943 71 24 25

TTUKUN

- Fotokopiak
- Liburu jostekak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

**UGARAN
jatetxea**

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

AGR
García Ripa
ERREFORMAX S.L.

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki, 3 behea (Musakola)
Tel eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia

Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahai eta aulkiak



KULTURA/ Kultura etxea egiteko proiektuak beste aurrerapauso bat egin du

Ospitale Zaharrean kultura etxea egiteko proiektua onartu du Arrasateko Udalak

IKER BARANDIARAN

Arrasateko Udalak egina eta onartua dauka Ospitale Zaharrean kultura etxea egiteko proiektua. Interes historikoa eta artistikoa daukan eraikin horren jabetza Udalak eskuratu du, frantzisko-tarrekin hainbat eztabaida eta hartu-eman izan ondoren.

Ospitale Zaharra deritzon eraikin erraldoi esanguratsua 1.500 metro koadroko hedadura dauka. Eraikina Otalora Lizentziaduna kalearen, Seber Altube plazaren eta Azoka kalearen artean dago. Herri erdialdean dago, San Frantzisko elizari lotuta. Eraikin historiko horretan bertan kultura etxea egiteko asmoa aspaldikoa da, eta asmo hori laster beteko dela dirudi. Udaleko Gobernu batzordeak J.J. de Ugarte arkitektoak idatzitako proiektu teknikoa onartu berri du. Epe laburrera, proiektua jendaurrean jarri beharko dute, eta gerora, kultura etxea egiteko lanak adjudikatuko dizkiote enpresaren bati.

ERAIKINA OSORIK ERABERRITU

Proiektu horrek hainbat lan aurrez ikusten ditu: eraikinaren sotoa, beheko solairua, tarteko solairua, lehenengo solairua eta etxabea eraldatzea, hain zuzen ere. Azken baten, eraikina bera eraberrituko dute. Ondorioz, eraikinaren beraren egitura, forjaketa eta barne zatiketak bota egingo dituzte. Horrez gainera, gerora berrituko erabili ahal izateko asmoz, estalduraren egitura desmuntatu egingo dute, sotoa moldatu ahal izateko indusketa egingo dute eta berbaldi aretoa klaustroaren altuera berean jarriko dute.

Bestalde, karga-hormaren egitura bere horretan utziko dute, eta zurezko forjaketen ordez, hormigoizko forjaketak eta habeak ipiniko dituzte.

Gauzak horrela, Ospitale Zaharrean prestatu beharreko instalazioak honako hauek izango dira: iturgintza, saneamendua, estoldak jartzea, eraikina bera klimatizatzea, suteak saihesteko neurriak hartzea, elektrizitatea, megafonia eta telefonía jartzea, besteak beste.

LIBURUTEGIAK ETA BESTE BATZUK

Arrasateko Udalak agindutako proiektuan agertzen denez, kultura etxe berriak honako zerbitzuak izango ditu: Udal Liburutegia, umeendako liburutegia, ibarreko erakusketa aretoa, hitzaldi aretoa eta ikasleendako gune bat. Egin beharreko lan guztiak udal aurrekontuetatik finantzatu dituzte, 2002, 2003 eta 2004. urteetako aurrekontuetatik, hain zuzen ere.



Iraganean erabilerara asko izan ditu eraikinak, eta joan den aspaldian, gaztetxea eta herriko artista batzuk oraindik ere hor daude.

Kostuei dagokienez, kultura etxea egiteko lanek 3.056.997,13 euroko aurrekontua izango dute. Bestalde, kopuru horri batu beharko zaizkie komentu barneko lanak (571.725,53 €), urbanizazio lanak (183.195,98 €), segurtasuna eta osasuna bermatzekoak (46.816,17 €) eta kalitate kontrola (9.817,65 €). Hala, denera, 3.868.552,46 € (643.672.969,61 Pta).

Lan horien ardura hartuko duen enpresak kultura etxean egin beharreko lan guztiak hogeita bat hilabetean bukatu behar-

ko ditu. Edozelan ere, proiektuaren eta, bide batez, Arrasateko Udalaren erabakiaren arabera, lanek hogeita lau hilabete iraun ahal izango dute, asko jota.

ERAIKINAREN BANAKETA

Arrasateko Udalaren proiektuak jasotzen duenez, eraikin eraberritua honela banatuko da: beheko solairuan, harreraz gainera, umeen liburutegia kokatuko dute, eta klaustroetan, erakusketa aretoa; sotoan, berriz, biltokia jarriko dute; eta tarteko solairuan

liburuen biltokia jarriko dute.

Lehenengo solairuari dagokionez, helduen liburutegia, batzarren gela, ikasteko gela eta hemerroteka jarriko dituzte.

Azkenik, etxabea liburutegia, ikasteko gela eta terraza jartzeko asmoa dute.

EGOITZA FINKOEN BEHARRA

Ospitale Zaharrean egingo duten kultura etxearen banaketa Udaleko Gobernu batzordeak onartu zuen 2001. urteko urriaren 21ean. Zerbitzu horiez guztiez gainera,

ibilerraztasun baldintza guztiak ere beteko ditu eraikinak.

Bestalde, Arrasateko Udalak Ospitale Zaharrean bertan orain dela urte gutxi arte egon diren elkarte eta talde askori beste egoitza batzuk eman dizkie. Edozelan ere, beste talde batzuek oraindik ez daukate egoitzarik edo egoitza jakin baten ez dute egoitza finantik izango. Horien artean herriko gaztetxea bera eta herriko artista talde bat daude; horiek aldarrikatu dute euren etorkizun laburra ziurtatzea.

90eko garaian ere jarduera kulturala batzen zuen gunea

XVII. mendean, oinaztarren eta ganboatarren gudu latzak amaitu ondoren, Erreforma Erlijiosoa piztuz lurralde askotan, eta Gipuzkoan erlijio fundazio asko sortu ziren. Horiekin lotuta, garai hartako Espainiako erregearen laguntzaile izandako Juan de Araoz eta Uriartek Arrasateko San Frantzisko komentua eraiki zuen, eta era berean, ikastetxe bat bultzatu zuen eraikin beraren barnean. Araozek, hil aurretik, eskola hura zuzentzeko fundazioa eratu eta haren arduradun Arrasateko Udala eta Errege Katolikoak izendatu zituen. Gerora, 1840. urtearen bukaeran, Espainiako gobernua komentua hustu egin zuen.

1849an, ordea, Isabel II.aren gobernua komentua Arrasateko

Udalari itzuli zion, betiere hezkuntzarako edo jendeari laguntzeko.

1892an, komentua ospitale bilakatu zen, eta mertzedariak hartu zuten haren ardura. 1954an, berriz, frantziskotarrek San Frantzisko eliza berreskuratu zuten. Gero, 1954. urtean, frantziskotarrak San Frantzisko elizara bueltatu ziren.

XX. mendearen hasieran, ostera, eraikinaren gune baten mertzedarien eskola egon zen, eta garai berean, eraikinaren beste gune baten tuberkulosia sendatzeko ospitalea egon zen hainbat urtean. Gerora, mertzedariak alde egin zuten eta ospitale hura ere itxi egin zuten.

70eko hamarkadan, berriz, San Frantzisko Xabier ikastolak haurtzaindegirako erabili zituen eraikine-

ko gune batzuk. Ikastolakoek alde egin zutenean, hutsik gelditu zen eraikin osoa. 80ko hamarkada bukatu ondoren, ARRASATE PRESSEk han kokatu zuen egoitza, eta Arrasate Telebista eta ludoteka ere han kokatu zituzten. 90eko hamarkada hasieran, hainbat gaztek Arte Hamabostaldia antolatzen zuten.

1991. urtean, bestalde, herriko hainbat gaztek beheko solairua hartu eta gaztetxe bihurtu zuten. Goiko solairua, berriz, txalaparta, trikiti, hitza eta Ekintza, DJ, margolari eta beste talde askok betez joan ziren. Gerora, baina, Arrasateko Udala eraikin guztia hustuz joan da. Artista bakar batzuk eta gaztetxea besterik ez dago hantxe, eta horiek ere kanporatu gura ditu Arrasateko Udalak.

ELKARRIZKETA

LARRAITZ TROJAOLA ETA DORLETA KORTAZAR/ZINEGOTZIAK

"Guganako errespetu handia igarri dut, gure ohiturekiko"

ARRASATE IRRATIA

Saharatik etorri berri diran han egon diren euskaldunak. Emakundek gonbidatuta, ibarretik, hamabost bat lagun egon dira Saharan. Horien artean Larraitz Trojaola mondragoetarra eta Dorleta Kortazar eskoriatzarra:

Zelan eta zetarako joan zarete Saharara?

L: Emakumeen IV. Kongresua egin dute Saharan. Emakundek gonbita egin zigun, bereziki erakunde mailan. Baina gurekin batera bestelako pertsonak ere joan dira, guztira, 250 bat: kongresura 140 joan dira eta 110, udan ume sahararrak hartzen dituzte la-eta, haiek ikustera.

Zer topatu duzue?

L: Egun bat berandu iritsi ginen eta, hain justu, kanpotarrendako antolatutako eguna galdu genuen. Beste bi egunak barrura begira antolatutakoak ziren. Eztabaidak euren hizkuntzan ziren, hortaz, ez genuen parte hartzeko aukerarik. Uste dut gehiago izan dela laguntza morala ematea eta han egotea.

Emakumearen egoera hizpide izan zen...

D: Jakin izan dugu oso eztabaida gogorrak izan direla, bereziki, emakumeen parte hartze handiagoa eskatzen dutelako, gazteek, batez ere. Kanpoan egon direnek beste ikuspegi bat dute eta gogor datoz bultzaka. Kongresu hasieran harridura izan zen nagusi. Zalantzak zituzten, adibidez, dibortzioarekin (emakumea ezin da dibortziatu), haurdun geratzen diren ezkongabeko emakumeen arazoarekin, politikan eta bizitza publikoan parte



IKER BARANDIARAN

"Eztabaida gogorrak izan dituzte, emakumeen parte hartze handiagoa eskatzen dutelako"

hartzeko aukerarekin... Edozelan ere, kongresua itxi barik geratu da, eztabaidatzen segitzeko asmoa dutelako; ikusi dugu ekarpen guztiek izan dutela leku biltzarrean.

Eta zelan konpondu dira zuekin?

Errespetu handia igarri dut

"Kongresua itxi barik geratu da, eztabaidatzen segitzeko asmoa dutelako"

gure ohiturekiko. Ez digute ezer esan ohiturak gordetzearren. Esaterako, oso gaizki ikusita dago emakumeak erretzea, eta guri ez digute ezer esan.

Han zelan bizi dira?

D: Dena eman gura dizute, eta eurek ez dute zer jan.


LABUR

Arrasate-Aretxabaleta Institutuan gertu dituzte batxiler tituluak

Arrasate-Aretxabaleta Institutuak prentsa ohar baten bitartez aditzera eman digunez, San Viatoriko, Almengo eta Arrasate-Aretxabaleta Institutuko 96-97, 97-98, 98-99 eta 99-00 ikasturteetako batxiler tituluak jaso daitezke dagoeneko. Tituluok jasotzeko ordutegia honakoa izango da: astelehenetik eguenera, 09:30etik 16:30era; eta egubakoitzetan, 09:30etik 14:00etara.

Arrasateko Udal Euskaltegia Interneten sartu da webgune baten bitartez

"Euskaraz eta euskararendako webgune bat sortzeko" helburuarekin, Interneten sartu dira Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako 40 udal euskaltegiak. Izan ere, webgune bat sortu dute. Horren barruan, gainerako euskaltegiekin batera, Arrasatekoa ere badago. Komunikazioa bultzatzea eta euskara hedatzea izango da webgunearen helburua. Hauxe da helbidea: www.udaleuskaltegiak.net.



UBANE MADERA

Biribilune berria Musakolan

Aurrez ikusitakoari segituz, eta margotze lanak bukatu eta gero, astelehen gauean zabaldu zuten Musakolako Oñati kalea. Ordura arte itxita egon zen, biribilunea egiten ibili direlako.

Joan den irail aldera hasi ziren lanean. Udalaren helburua zen Musakolako sarrerako zirkulazioa bideratzea, han batzen dira eta Musakolako industriadetik eta auzoaren goiko aldeetik irteten diren ibilgailuak. Oñati kaleko zenbait bizilagun ez zeuden konforme biribilunea egitearekin, eta ika-mikak izan zituzten Udalarekin. Edozelan ere, egin dute biribilunea.



ARITZ
erreformak

Egur aroztintza,
aluminioa eta PVC
Ateak, tarimak,
errodapieak
Horma-armairuak
Sukaldeko altzariak

Koltxoiak
%35eko deskontua koltxoi
stock-a bukatu arte

Gremioen koordinazioa
Igeltserotza
Iturgintza
Elektrizitatea, etab.
Azulejoa eta gresa.

Ferrerias 44 ARRASATE
943 79 46 85
619 51 80 88

**ZUBIZARRETA
LANTEGIAK**

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65



**Pando
Errotuloak**

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Ibilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Señalizazioak

Lonak

Erliebendun hizkiak

**Mobiliario
ARENZA**

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAleta

Makatzena auzoko bizi kalitatea hobetzeko asmoa du Udalak

UBANE MADERA

Makatzena auzoko oinezkoendako guneak, ibilgailuendako bideak, aisialdirako lekuak eta, oro har, auzoaren zerbitzuak hobetzeko asmoa du Arrasateko Udalak. Hori guztia egiteko lanen lehenengo zatia bukatu dute: auzoaren egoeraren diagnostikoa, hain zuzen ere.

Diagnostiko horren emaitzen arabera zehaztuko dute Makatzena auzoan egin beharreko lanak. Adibidez, aparkaleku gehiago egitea komeni dela dio txostenak. Izan ere, auzoan 450 ibilgailu daude erroldatuta, baina ez dago guztiendako aparkalekurik. Ondorioz, auto asko gaizki aparkatuta egoten dira. Hori dela eta, auzoaren diagnostikoaz gain, Egitamu Orokorrean ere aparkaleku gehiago egitea aurrez ikusi dute; batzuk auzoaren sarreran egingo dituzte, eta horretarako, kanposanturako bidea aldatuko dute. Era berean, garaje pribatuak egitea ere aztertu dute Egitamuan. Horrez gain, beste kale bat egitea ere aurrez ikusi dute, eta han sei eraikin egitea.

Diagnostikoak erakutsitakoarekin segituz, Makatzenan lokal hutsak daudela dio, eta ez dituz-



UBANE MADERA

Aparkaleku gehiago eta lokal hutsak erabiltzea aurrez ikusi dute, besteak beste.

tela erabiltzen. Hortaz, zelanbait, lokal horietan liburutegia, zaharrendako egoitza, batzar gelak edo antzeko lekuak sortzea proposatu dute txostenean.

OINEZKOENDAKO HOBEKUNTZAK

Bestalde, auzoa oinezkoendako egokitu beharra dagoela ere adierazten du txostenak. Oro har, auzoaren ibilerraztasuna bideratzea eta berdeguneak egokitzea proposatzen du, baita auzoan dau-

den umeendako eta kirola egiteko guneak hobetzea ere. Hain zuzen, material gehiago erostea eta oraingo kirolgunearen zorua ordez bigunagoa jartzea proposatzen du diagnostikoak.

Eta horrekin guztiarekin batera, auzoaren zerbitzuak (ur eta argindar sarea, telefonoa...) ere konponduko dituzte.

Orain, diagnostikoa aztertu eta horren arabera aurreproiektua idatziko dute.

Gelmako langileak kezkatuta daude lantegiaren lekualdatzea dela eta

UBANE MADERA

Arrasateko Egitamu Orokorrean arabera, etxebizitzak eraikitzeke asmoa du Arrasateko Udalak orain Gelma lantegia dagoen lekuan. Era berean, Udalaren proposamena da Gelma lantegia errekararen beste aldera eramatea, Gamei lantegia dagoen ingurura, gutxi gorabehera.

Baina Gelmako langileak kezkatuta daude erabaki horrekin. Jon Ormaetxeak, Gelmako Enpresa batzordeko kidea, GOITBri adierazi dionez, "Udalaren urba-

nizazio planen zirriborroan lursail hori desjabetua izan behar dela jasotzen da". Eta hain justu ere, horrek ematen die beldurra enpresako langileei; izan ere, Jon Ormaetxearen esanetan, "desjabetzearen bidea segituz gero, badakigu zer gertatuko den: Gelmako lanpostu guztiak desagertu egingo direla. 300 langileok kalean geratuko gara". Hori dela eta, Arrasateko Udalarari eta Gelmako zuzendaritzari gai hori lantzeko harremanetan jartzeko eskaera egin diete, baita euren artean ados jartzeko ere: "Alde

guztiak bat etortzea gura dugu, inor kaltetu barik".

UDALAREN ERABAKIA FALTA DA

Hori guztia idatzi baten azaldu diote Udalarari. Eta Udaleko Gobernu batzordeak oraingo asteen aztertu du gaia, baina oraindik ez du erabakirik hartu. Are gehiago, Gelmako zuzendaritzak Egitamu Orokorra dela-eta, Arrasateko Udalarari egindako alegazioen erantzunaren zain daude. Hortaz, oraindik argitu barik dago Gelmako langileek etorkizunarekin duten kezka.

LABUR

Enplegua bultzatzea eta balio naturalei eustea, Kontseilu Sektorialaren nahietako bi

Ingurumenaren gainean egindako diagnostikoaren emaitzak eskuan izanda, datozen 11 hilabeteotan lantzeko 15 betebeharrak zehaztu ditu ingurumenaz arduratzen den Kontseilu Sektorialak: enplegua bultzatzea, bereziki, emakumeena; balio naturalei eustea; herriko zenbait gune berritzea (Uribarri eta Makatzena, adibidez); babes ofizialeko etxebizitza gehiago egitea; garraio publikoa bultzatzea, oinezkoei lehentasuna emateko; zaborra batzeko sistema hobetzea; energia aurrezteak; airearen kalitatea hobetzea; zarrak neurtzea eta kutsatutako lurzorua berreskuratzea. Horrez gain, ingurumenarekin zerikusirik ez duten asmoak ere jasotzen ditu, normalizazio linguistikoa bultzatzea, esate baterako.

ARKOren eta Goienaren arteko hitzarmena nagusi ARKOko batzar orokorrean

Urteroko batzar orokorra egin zuen ARKO kultura elkarteak atzo, eguena. Iazko jardueraren eta kontuen azalpena eta onarpena lantze eta etorkizunerako asmoak azaldu zituzten. Besteak beste, 2001. urtea ARKOendako berezia izan dela nabarmendu zuten elkarteeko ordezkariak. Iaz burutu zen ARKOren eta Goienaren arteko hitzarmena eta ordutik hona, Goienak kudeatzen ditu ARKOren produktuak: Arrasate Press eta Arrasate Irratia. Horren harira, aldizkarian gertatutako eraldaketan eta berrikuntzen balorazio positiboa egin zuten. Irratiaren gainean, berriz, kalitatea hobetu egin dela eta emisioa luzatu egin dela nabarmendu zuten. Sail komertzialak ere gorakada nabarmena izan duela jakinarazi zuten.




Obenerrekarako bidea itxita

Kolektorearen lanak direla-eta, Obenerrekarako bidea itxi egin dute. Hain justu, handik Makatzeneraino hodi bi sartu behar dituzte, eta abuztura arte lanean jardungo dute. Dena dela, Udaletik jakinarazi digutenez, lanok zatika egingo dituzte, ahalik eta eragozpen txikiak sortzeko. Orain, errepedetik hasi eta oinezkoen zuzendariraino dago bidea itxita; hortaz, ibilgailuak bi lekutatik joan daitezke Obenerreka eta inguruetara: San Frantzisko Xabierko biribilunetik gora, Jose Luis Iñarra kalean barrena, edo Santa Teresa kaletik gora.

TOLDOS
LECE C/B

Kataide Industrialdea, 14 Musakola • ARRASATE
Tel.: 943 79 23 83 Faxe: 943 77 04 45

**Eguzkiari aurre egiten diogu
inork baino hobeto**



**OSORIK
PUB**

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE



ALMERIARA GORE-TEX TXAMARRAREKIN, ALA?

Egoitz, Aritz, Jon, Xabi eta Xabi Almerian izan dira Aste Santu osteko astean, eta Iker haiekin joan bazen ere, azkenean bidean geratu zen, Granadan. Arrasatear hauek eguzki eta lasaitasun bila abiatu ziren

Andaluzia aldera. Lehenak kale egin zien, eguzkiak, alegia, baina lasaitasuna gura adina izan zuten. Norbaitek bainujantzi artean Gore-Tex txamarra bat ere eraman zuten, baita asmatu ere!



ARRASATETIK SAHARARA

Argazki hau Saharako basamortuan ateratakoa da, eta ikusten denez, Ikurrina hara ere iritsi da. Arrasatetik hainbat lagun joan dira Emakume Sahararren Biltzarrera, eta argazkian hainbat debagoiendar ageri da Saharako presidentea-

rekin. Arrasatearrak 27 de Febrero kanpamentuan izan ziren sei egunez, eta txundituta bueltatu ziren emakume sahararrek erakutsitako jarrerarekin. Emakume umilak, baina era berean, alaiak eta irekiak, egoera zailean bizi badira ere.

HAMABOST INGENIARI KORSIKAN IKASKETA BIDAIA

Arrasaten ikasten dabiltzan 15 ingeniari hauek Korsikan izan dira astebetetz. Argazkia Ajaccioko aireportuan atera zuten, baina argazkian ez dira guztiak azaltzen. Uhartea goitik behera ikusten ahalegindu ziren, baina ez da lan erraza, errepideak ez dira eta batere onak. Edozelan ere, txundituta etorri dira han ikusitakoarekin, eta hainbat ekintza egiteko aprobetxatu dute. Esan digute garesti samarra ei dela.



NEW YORKEN BADAGO ZER IKUSI, GALDETU BAÑOSI BESTELA

Baños bigarrenoz izan da New York-en. Joan den urtean ere hantxe izan zen, eta aurten go Aste Santuan hegazkina hartu eta Rubenekin batera Iñigo bisitatzera joan ziren. Iñigo Bostonen dago, eta Bostonera joan eta gero, New York-

erako bidea hartu zuten. Hiri hartan ehunka bitxikeria daude, baina besteak beste, CBGB musika areto mitikoan egon ziren. Areto mitiko hartan egin zituzten Ramones taldekoek lehenengo kontzertuak; hortaz, badago zer ikusi New York-en.




ARIZMENDIKOAK EUROPAN ZEHAR

Arizmendiko San Vitor ikastolako ikasleak Europan barrena izan dira egunotan. Batxilergoko bigarren mailako ikasleak 14 egun egon dira Frantzia, Suitza, Alemania, Txekia eta Holanda bisitatzen, eta lehenengo egunetan ezusteren bat edo

beste izan bazuten ere, azkenean bikain pasatu dute bidaian. Argazki hau Munich-en ateratakoa da, eta egia esatearren, ez da erraza 73 lagun argazki baten harrapatzea. Argazkilariari, gida bati, eskerrak eman behar.

COVADONGA ALDEAN

Itsasnek bikain igaro du Aste Santua. Gurasoekin izan da Asturias aldean, eta ezin esan denbora alferrik galdu dutenik, Picos de Europan ere ibili dira-eta. Argazkian, Itsasne bakarrik harrapatu dute, lehoiaren gainean eserita. Benetakoa izango balitz, ez luke irribarre hori izango, seguru.



DINOSAURO ARTEAN

Arrasateko koadrila honek, Aste Santuetan kanpora joan beharrean, Euskal Herria hobeto ezagutzeko aprobetxatu du. Egunero hara eta hona ibili dira, seme-alaba eta guzti. Errioxaraino ere hurreratu dira; argazki hau Enciso herrian dagoen Dinosauroen Bidean dago aterata. Ez dakigu umeez edo nagusiek pasatu zuten hobeto.



GANTZAGATIK ITURRIETARA

Gantzaga auzoko aramaioar hauek (arrasatearrik ere bada) Iturrieta sagardotegira joan ziren martxoaren 11n. Bikain afaltzeaz gain, edan ere gogotik egin zuten. Itxuraz, koadrilakoren batek


ez zeukan oso argi zer dela-eta egin zuten afari hura, baina orain badauki zein zen afariaren arrazoia. (Besteok gogoarekin geratuko gara). Dena dela, eskerrik asko, Ainararen partetik.



KANTU TXAPELKETARAKO GERTU

Euskal Kantu Txapelketa izango da apirilaren 13an Ibarrao kiroldegian, eta 14 arrasatear izango dira hantxe. Astelehen arratsaldean irratian izan ziren gazte

hauek, eta martitzenean, entseatzan ari zirela, argakia egiteko aprobetxatu genuen. Besteak beste, *Let it be* abestiaren moldaketa egin dute.



HORI DA HORI ARRANTZAN EGITEA

Martxo amaieran, arrasatear gazte hau, Gonzalo Espartza, esku bete arrain etorri zen Albinatik. Guztira, hiru amuarrain harrapatu zituen: 3 kiloko bat, 1,5 kiloko beste bat eta kilo batekoa azkena. Bestalde, Gonzalok Errioxan arrantzan egiteko baimena eskuratu gura du. Santo Domingora joan behar!

EMAKUME TXOKOA

IKASTARO BERRIAK APIRILEAN

MUSIKOTERAPIA IKASTAROA

EUSKAL HERRIKO HISTORIA EMAKUMEEN IKUSPUNTUTIK

EMAKUME ETA GIZONEZKOAK PUBLIZITATEAN

Informazio gehiago:
Emakume Saila. Tel.: 943 79 41 39
Gazte Bulegoan. Tel.: 943 77 00 65



ARRASATEKO UDALA

Emakume Saila



Ander Corcuera Albaceteko zirkuituan, 136 zaldi-indarreko Hyundai Accent autoarekin.

ARRASATE PRESS

AUTO LASTERKETAK

Ander Corcuera podiumean izan zen Hyundai Kopako lehen lasterketan

Pilotu arrasatearra hirugarren izan zen Albaceteko zirkuituan

XABIER URZELAI

Joan den urtean Clio Kopan ibili eta gero, pilotu arrasatearrak aurten Hyundai Kopan hartuko du parte. Joan den asteburuan, denboraldiko lehenengo lasterketa jokatu zen, eta Ander Corcuera sekulako maila erakutsi zuen.

Guztira, 50 pilotu aurkeztu ziren Hyundai Kopako lehenengo lasterketara, baina araudiaren arabera 40 autok baino ezin dute lasterketan parte hartu, eta kanporaketan, nahiz eta euria egin,

arrasatearrak ez zuen kale egin. Domekan, bi lasterketa jokatu ziren: lehenengoan, arrasatearra zortzigarren iritsi zen helmugara; bigarren lasterketan, gauzek hobera egin zuten. Arrasatearrak bost piloturi aurre hartu, eta hirugarren izan zen helmugan.

Berrogeita hamar piloturen artean hirugarren sailkatzea gaitza da, baina are zailagoa da hori egitea inoiz pilotatu bako auto batekin. Pilotu arrasatearrak aurten ezin izan du Clio Kopan parte hartu, aurrekontu handia behar da-eta. Arrasatearrak ez du gura izan zirkuituetatik kanpo

geratu, eta Hyundai Kopan parte hartzeko aukerari eutsi zion.

Iaz, Clio autoarekin esperientzia txikia izanda ere, Andrerrek lasterketa onak egin zituen, eta joan den asteburuan argi erakutsi zuen auto berriari neurria berehala hartu diola.

Aurtengo autoak -Hyundai Accent- Clio autoak baino indar txikiagoa du: mila eta bostehun zentimetro kubikoko motorra eta 136 zaldi-indar dauka Hyundai autoak. Lehenengo lasterketan dagoeneko hirugarren sailkatu bada Ander, pilotu arrasatearrak denboraldi polita egin dezake.

Uarkapeko Koadrila Arteko Esku Pilota Txapelketa, abian

X.U.

Joan den urteko arrakasta ikusita, aurten ere, Koadrila Arteko Pilota Txapelketa izango da Uarkapen. Apirilaren 20tik aurrera zapatu goizetan pilotan egin gura duenak aukera ezin hobea izango du. Izena emateko epea domekan amaituko da, hortaz, ez lokartu.

Federatu gabeko pilotazaleek pilota txapelketa baten berriro ere parte hartzeko aukera izango dute apirilaren 20tik aurrera. Txapelketa 16 urtetik aurrerako dago zuzendua, eta bikoteko 15 euro ordaindu behar dira. Bikote bakoitzak ordezko baten izena eman dezake, baina beste inork ezin izango du bikote horrekin jokatu.

EGUTEGIA ERRESPETATU


Txapelketa lau t'erdi barruan izango da, eta badaezpada ere,

pilota goxoezin jokatu da. Txapelketak egutegia izango du, eta ahal den neurrian, egutegi hori errespetatu egingo dute. Bikot batek ezingo badu jokatu, beste bikotearekin ados jarri eta antolatzaileei abisua eman eta gero partidua aurreratzeko aukera izango da.

Txapelketako lehenengo fasean ez da epailerik izango, eta bigarren fasean talde bakoitzeko lehenengo bikoteak sailkatuko dira. Sailkapenean bi taldek puntu berberak izanez gero, lehenengo bikoteen arteko emaitza hartuko da kontutan, eta gero tanto *overtime* orokorra. Kontuan izan behar da partidu batera kale egingez gero, bikotea txapelketatik kanporatua izango dela.

Txapelketak apirilak 20tik ekainak 23ra arte iraungo du eta partiduak zapatu goizetan jokatu dira. Izena eman nahi duzuenok Uarkapeko tabernara hurbildu domeka baino lehen.

FOTOKIROLA



Mondrak Kilimonen aurka jokatu du

Raul Leibaren mutilak lanera bueltatu dira, eta domekan, Kilimon taldearen kontra jokatu dute, Mendaron. Arrasatearrak Elgoibarri 6-0 irabazita joan ziren oportetara, baina aurreko postuetan dauden taldeen kontra emaitza txarrak lortu eta gero, geratzen diren sei partiduetan ezer gutxi egin dezakete. Goiko postuetako taldeak urrunegi daude, eta Arrasateko taldeak preferente mailara igotzeko aukerak galdu ditu. Denboraldia ondo amaitzeko egingo dute lan arrasatearrek. /X.U.

Arrasateko triatletak Gasteizko Duatloian izango dira asteburuan

X.U.

Antxintxika Debagoiena taldeko atletak Gasteizen jokatu den mendiko duatloian izango dira asteburuan. Aurten, hainbat arau aldatu egin dituzte, eta aldaketa nabarmenena da mendiko bizikletarekin ibili beharko direla.

Arrasateko atletek esan dute ez dutela erlojuari begira egoteko asmorik, eta helburua izango da proban parte hartu eta ahalik eta ondoen amaitzea. Orain arte, errepideko bizikletarekin ibili dira, hortaz, ezin jakin mendiko bizikletarekin zelan moldatuko diren.

Joan den asteburuan, Antxin-

txika Debagoiena taldeko hainbat atleta Barakaldoko Duatloian izan ziren. Gasteizko Llanos anaiek sekulako erakustaldia egin zuten. Jon Aperribaik eta Zuhaitz-Ezpeletak lan polita egin zuten, baina oraingoan ezin izan genituen ikusi, orain arte moduan, aurreneko postuetan.

Babeslea

SPORTLAND
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate



Ile apaindegira baino lehenago heltzen gara.
Ibarreko BERRIAK gertu-gertutik egunero.

BERRIAK

- Astelehenetik egubakoitzera
14:00etan eta 20:00etan
- Errepikapena egunero, 15:30ean eta 21:30ean
- Aurkezleak: **Gorka Etxabe** eta **Maidor Osa**



II. Arrasate Hiria Xake Txapelketa hasiko da gaur Altamirako egoitzan

XABIER URZELAI

Gaur, arratsaldeko zazpietatik aurrera, Arrasate Hiria Xake Txapelketako lehenengo partidak jokatuko dituzte. Txapelketa itxia izango da, eta Arrasateko San Andres taldeak gonbidatutako sei xakelari arituko dira. Horiez gainera, Luis Angel Ortega, Josu Tornayk, Txema Hernandok eta Isidro Ruizek jokatuko dute.



ARTXIBOA

Xake partidak egubakoitzero jokatuko dituzte, arratsaldeko zazpietatik aurrera.

Hamar xakelarik hartuko dute parte gaur hasi eta ekainaren 7an amaituko den txapelketan. Partidak egubakoitzero jokatuko dituzte, eta joan den urtean moduan, xakelariak bederatzi astez ibiliko dira zein baino zein. Torneo lehiatsua izango da, eta badago faboritua dagoeneko: Cristobal Limeres gernikarra, hain zuzen ere. Edozelan ere, Arrasateko San Andres Xake Taldeko xakelariak ahal duten guztia egingo dute lehen saria eskuratzeko.

Aurten, Arrasate Hiria Txapelketak bigarren aldia izango du. Joan den urteko emaitza ona ikusita, txapelketa horrek indarra hartu du, eta Euskadiko eta Espainiako sailkapenentarako balio izango du. Joan den urtean, Carlos Nava bilbotarra nagusitu zen,

eta Arrasateko onena, berriz, Luis Angel Ortega izan zen.

EUSKAL HERRIKO TXAPELKETAN, BIKAIN

Luis Angel Ortega Aste Santuan jokatu den Euskadiko Txapelketan hartu du esku. Txapelketan bi txanda izan ziren, eta lehenengo txanda amaituta, Arrasateko taldean jokatzen duen lasartearra laugarrena zen. Bigarren txandan, ordea, partidak ez zituen horren ondo jokatu, eta txapelketa hamargarren tokian

bukatu zuen. Ibarrean Luis Angel Ortega bakarrik eskuratu zuen txapelketara joateko txartela, eta lortu duen hamargarren postuak argi utzi du kontuan hartzeko xakelaria dela lasartearra.

Josu Tornay, bestalde, Donostiako XXV. Nazioarteko Irekian izan da. Munduko hainbat txokotako xakelariekin indarrak neurtu ditu Tornayk, eta arrasatearra 28. sailkatu da.

FOTOKIROLA



Parte hartzaile gutxi baina giro aparta Doke Txapelketan

Nahiz eta parte hartzaile gutxi izan, aurten ere, elkarteek ez dute kale egin. San Isidro, Santa Marina, Egiptea, Txalaparta, Uribarri eta Kasino elkarteak izan ziren lehian. Hirugarren eta laugarren postuak Santa Marina eta Egiptea elkarteek jokatu zituzten, eta Egiptea nagusitu zen. Finala, berriz, San Isidro eta Txalaparta elkarteek jokatu zuten, eta San Isidroko elkarteak nagusitu zen: 51-31.

Txapelketa Udaleko ordezkarien kontra neurtu zituzten indarrak, eta Zigorrolakoak 22-53 nagusitu ziren. Gaztetxoek ere euren abilezia erakusteko aukera izan zuten, eta finala Leintze eta Udape elkarteek jokatu zuten. Leintze elkarteak Amaia Vázquez eta Seila Moreno nagusitu ziren. Joko ona elkarteek jarri zuten, eta hamarretakoa, berriz, Udalaren kontura izan zen. /X.U.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

A MULTZOA

Iritzu Taberna - Bin Laden	4-4
Koka Junior Basati - AC Surcos	1-4
Bikain Akademia - Etxerat	5-7
Goma2 - Usotz Potroak	6-2

B MULTZOA

Azkena You Know - Rayo Aldeano	1-1
Aurrera Bolie - Betraye	3-7
Irati STS - Chapime Dribling	3-7
AT Celaya - I.K.P.	7-8

PARTIDUAK

APIRILAK 13, ZAPATUA. EPAILEAK

10:50: Bin Laden - Etxerat. Antolakuntza
12:00: Betraye - Azkena YK. Antolakuntza
13:00: Goma 2 - Bikain Ak. Antolakuntza
15:50: Aurrera Bolie - I.K.P. Antolakuntza
17:00: Rayo Aldeano - Dribling. Antolakuntza
18:00: Iritzu - AC Surcos. Antolakuntza

APIRILAK 14, DOMEKA

11:50: KJ Basati - Usotz Potroak. Antolaku
13:00: AT Celaya - Irati STS. Antolakuntza

SAILKAPENA

A MULTZOA

	P	J
1. Etxerat	4	2
2. AC Surcos	4	2
3. Bin Laden	3	2
4. Goma2	2	2
5. K.J Basati	2	2
6. Iritzu taberna	1	2
7. Bikain Akademia	0	2
8. Usotz Potroak	0	2

B MULTZOA

	P	J
1. Chapime Dribling	4	2
2. Betraye	4	2
3. Azkena You Know	3	2
4. I.K.P.	2	2
5. Irati STS	2	2
6. Rayo Aldeano	1	2
7. AT Celaya	0	2
8. Aurrera Bolie	0	2

ZALDIBARREN ERE, AKABO OPORRAK

JOAN DEN URTEKO FINALISTAK AURREZ AURRE

Bigarren fase honetan norgehiagokak gomendatzea gaitza da. Edozelan ere, oraingo asteburuan, joan den urtean finalera iritsi ziren bi taldeak izango dira aurrez aurre. Zapatuan, arratsaldeko bostetan, Rayo Aldeano eta Dribling taldeek indarrak neurtuko dituzte berriro ere. Joan den urtean, Aramaioko taldea (Rayo Aldeano) nagusitu zen, baina aurten, gauzak bestelakoak izan daitezke. Ikusi egin behar.

BETRAYE ETA AZKENA YOU KNOW TALDEEK, DERBIA

Bi talde horiek koadrila berekoak dira; hortaz, oraingo asteburuan bestetan baino motibatua jokatuko dute. Lagunarteko partidua, askotan, besteak baino gogorragoak izaten dira, baina baita ikusgarriagoak ere.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

SASKIBALOA

Calahorra - Kenci Arrasate
Seniorrak, Zapatuan, 20:00. Calahorra.
Deportes Gonzalez - Kenci Arrasate
23 urte azpiokak. Domekan, 10:20. Irun.
Indulita Niessen - Kenci Arrasate
Juniorkak, neskek. Domekan, 12:00. Errenteria.
Easo B - Kenci Arrasate
Juniorkak, mutilak. Zapatuan, 16:00. Donostia

FUTBOLA

Kilimon - Mondra
Erregionala. Domekan, 16:30. Mendara.
Mondra - Marino
Ohor. gazt.: Zapatuan, 18:00. Atxabalpe.
Arrasate - Internacional
2. mailako gazteak. Domekan, 16:30. Atxabalpe.
Antiguoko - Arrasate
Ohorreko kadeteak. Domekan, 10:30. Berio.

Arrasate - Eibar

Ohorreko infant. Zapatuan, 16:15. Atxabalpe.

Mondra - Aurrera Vitoria


Neskek. Domekan, 11:00. Atxabalpe.

ESKUBALOA

Arrasate - Bergara
Gazte maila. Domekan, 11:30. Iturripe.

BESAIDEK ANTOLATUTAKO

MENDI ESKI ZEHARKALDIA
Besaide Mendi Elkarteek mendi eski zeharkaldia antolatu du apirilaren 20an eta 21ean. Itteera Arango ibarrera (Lleida) egingo dute, eta bertan emateko epea apirilaren 16an amaituko da. Aurretik 30 € aurreratu behar da.
ARRASATEARRAK BARAKALDOKO DUATLOAN
10. Jon Aperribai. 0:57:06
15. Zuhaitz Ezpeleta. 0:57:22
90. Jon Egiluz. 1:07:13
91. Zigor Jimenez. 1:08:06



ALEX AZKARATE

Idazle eta ipuin biltzaile askoren informazioaz gainera, munduko herrialde askotako ipuinak batu dituzte.

'Ipuinez ipuin, haur literaturaren aretoa' abian dago Monterronen

IKER BARANDIARAN

Arrasateko Udal Liburutegiak, Galtzagorri elkar-tearen laguntzarekin, ipuinen inguruko erakusketa berezia ekarri du Arrasatera. Horrez gainera, Liburuaren Egumarekin lotuta, beste hainbat ekitaldi antolatu ditu.

Arrasateko Udal Liburutegiak, Liburuaren Egumarekin lotuta, beste hainbat ekitaldi antolatu ditu. Horretan, egitarau zabala antolatu du hilabete honetarako. Horretan, Galtzagorri elkar-tearen laguntzarekin, *Ipuinez ipuin, haur literaturaren aretoa* antolatu du Udal Liburutegiak. Hain justu ere, ipuinen garrantziaren eta ipuinak bildu dituztenen gaineko erakusketa garrantzitsua antolatu dute Monterrongo erakusketa aretoan. Erakusketa berezi hori apirilaren 3an zabaldu zuten, eta hilabete bukaerara arte egongo da zabalik.

Horrekin batera, erakusketa egoteaz gainera, areto moduan ere erabiliko dute: hilabete honetan bertan, hainbat ipuin kontalari eramango dituzte Monterrongo erakusketa aretora bertara. Gero-ra, txotxongiloak eramango dituzte, eta kontzertu eta poesia irakurketa ere egingo dute.

Monterronen jarri duten erakusketa bitartez, ahozko eta tradiziozko ipuinak bildu eta jaso dituzten idazleen eta ikerlarien

Apirilean, ipuin kontalariak, txotxongiloak eta poesia irakurketa izango dituzte

Ahozko ipuinak jaso eta idatzi dituztenen ondarea ikusteko aukera eskaintzen du erakusketak

papera nabarmendu gura izan dute. Horrela, hamasei idazleren gaineko panel bana eta euskarazko, gaztelaniazko eta munduko beste lurralde batzuetako ipuin liburuak batu dituzte: Australiakoak, Greziakoak, Txekiakoak, Indonesiakoak eta Alemaniakoak, besteak beste.

Erakusketa eta, bide batez, areto horren helburuak honako hauek dira: ipuin biltzaileen lanaren garrantzia azpimarratzea, umeak ipuinetara hurreratzea, ipuingintzak umeen garapen afektiboan eta irakurtzeko zale-tasuna sortzean duen garrantziaz

jabetzea, guraso zein irakasleei ipuinak dituen onurak lantzeko tresna eskaintzea, eta ahozko-tasunak ume eta gazte literaturan duen garrantzia aztertzea, hain zuzen ere.

Panel horietan, oso modu errazean, Euskal Herriko, Kataluniako, Galiziako, Andaluziako, Frantziako, Danimarkako, Txinako eta Arabiako herrialdeetako idazle eta biltzaileen historia eta ezaugarriak azaltzen dira, banan-banan. Horrela, ipuin kontaketa herrialde horietan eduki duen paper hezitzailea eta kultura eta balio gogorle izaera nabarmendu dute. Resurreccion Maria de Azkue, Joxe Miel Barandiaran, Jacob eta Wilhelm Grimm, Charles Perrault, Hans Christian Andersen eta beste hainbat ipuinak, besteak beste.

Erakusketa eta aretoaren beraren antolatzaileen esanetan, erakusketa hori hirugarren mailako ikasleei eta horiek baino nagusiagoei zuzenduta dago. Hori dela eta, apirilaren, Arrasateko ikastetxe guztietako hirugarren mailako ikasleak areto horretatik igaroko dira, ipuinen mundua hobeto ezagutzeko eta, era berean, "ipuinekin bidaiatzeko".

Umeez gainera, helduek ere erakusketa gozatzeko aukera izango dute: astegunetan arratsaldero eta zapatuetan egun osoz; eta gura badute "ipuinekin bidaiatu" egingo dute.

KULTURAPILULAK

Arrasate-Aretxabaleta Institutuak zinekluba antolatu du Amaia Udal Antzokian

Arrasate-Aretxabaleta Institutuaren 25. urteurrena dela-eta, *Ira-kaskuntzaren zinea* zinekluba antolatu dute Institutukoek. Egunenero, 21:30ean. Joan den egunean, Italiako *Padre-Padrone* filma ikusteko aukera egon zen. Datorren egunean, berriz, Alemaniako *El enigma de Gaspar Hauser* filma emango dute. Eta zikloa bukatzeko, 25ean, *Errebelde baten egunkaria* emango dute.

Rai Bueno ipuin kontalaria martitzenean arituko da Santa Marinan eta Monterronen

Udal Liburutegiak apirilean antolatu duen *Ipuinez ipuin, haur literaturaren aretoa*-rekin lotuta, Rai Bueno ipuin kontalaria ekarriko dute martitzenean Arrasatera. Bost eta zortzi urte arteko umei ipuinak kontatuko dizkie Raik: 17:00etan, Santa Marinako auzo-liburutegian eta 18:30ean, Monterronen.



TENTAZIOA

Antzezlan horrek subertsioa, umorea eta satira uztartzen ditu.

'Muerte accidental de un anarquista' Amaia antzokian

I.B.

Kultura Sailak antzezlan berezia antolatu du domekarako: Dario Foren *Muerte accidental de un anarquista*. 19:30ean izango da, Amaia Udal Antzokian, Tentazioa produkzio etxearen eskutik.

Tentazioa produkzio etxea 1998an sortu zuten, Donostian, eta ordu-tik hona, telebistarako eta antzoki-erakundeetarako lan dezente prestatu ditu. Taldea bera ibilbide profesional luzea duten hainbat artistak osatzen dute, eta produkzio etxe horren lanetan aurpegi eza-gun asko ikus ditzakegu.

ZITANIA TEATRE-REKIN LANKIDETZAN Dario Fok idatzitako *Muerte accidental de un anarquista* lana 80ko hamarkadan estreinatu zuten, Bartzelonan. Hogei urte geroago, Tentazioa eta Zitzania Teatrek lan horren beste ekoizpen bat egitea erabaki zuten.

Muerte accidental de un anarquista lana oso ezaguna da munduko hainbat herrialdetan, eta oso bitxia da lan horren haria: istorio berean satira eta umorea ederto nahasten ditu lan horrek.

Horrez gainera, istorioak berak izaera subertsibo edo iraultzailea ere badauka, eta boterearen eta boterearen gehiegizko erabilerearen alde iluna ere erakusten digu. Horregatik, kapitalismo basatia, askatasuna, gizakia kontrolatzeko gailuak, gizakiaren duintasuna eta antzeko gaiak lan-tzen ditu *Muerte accidental de un anarquista* antzezlanak.

Nabarmentzekoa da, bitxikeria moduan, *The Guardian* egunkari ingeles ezaguneko kritikotek *Diario accidental de un anarquista*-ren gainean esan zuena: "Antzezlan hori Marx anaien idatz zezaketen, Karl-ek eta Grouchok". Horra hor kritikotek hark esan zuena.

Izan ere, egia da antzezlan horretako hainbat pertsonaiek ederto irudikatzen dituztela gizarteko hainbat indar politiko eta sozial, eta euren arteko borroka edo istiluak.

Muerte accidental de un anarquista antzezlanaren ekoizpen berri horretan Aitor Mazo, Ramon Ibarra, Asier Hormaza, Jose Ramon Soroiz, Kike Díaz de Rada eta Ane Gabarain aktore ezagunek hartzen dute parte, eta zuzendaria Pere Planella da.

E, TXO!

GUREGAIK/ HAMAICA URTE EKITALDIK ANTOLATZEN

TXATXILI, BEGIRALE BILA

Txatxilipurdi 2002ko udalekuak prestatzen dabil. Udalekuetan begirale izateko interesa duzuenok bidali curriculuma Pablo Urangako egoitzara (6. zenb.); edo deitu 943 771739 telefono zenbakira, apirilaren 18a baino lehen. Derrigorrezkoa da 18 urtetik gora egokitzea, euskaraz berba edukitzea gai izatea eta Txatxilipurdik antolatzen dituen eragileen heziketa saioetan parte hartzea.

TXIKIPARK, TXATXILIREKIN

Apirilaren 20an, Txatxilipurdik Gasteizko Txikiparkera irteera antolatu du. Ekintza hori Larunblai programaren barruan kokatu dute eta hiru eta hamar urte artekoak zuzenduta dago. Izanemate apirilaren 17ra arte izango da, eta bost eta sei euro artean ordaindu beharko dute.

KONTZERTUA GAZTETXEAN

Bihar, 22:00etan, eta Arrasateko gaztetxean, Cuerno de Chivo, X-At eta Neu taldeek kontzertua emango dute. Nafarroatik eta Bergaratik datozkigu metal eta hardcore doinuekin.

GAZTELAKO ABERTZALEAK

Domekan, Gaztelako abertzaletasunaren gainean berba egitera joango dira lagun batzuk gaztetxera. Berbaldia 18:00etan hasiko da.

GAZTETXEAN SORPRESARIK?

Gaztetxeak sorpresa bat ei dute datozen egunetarako. Adi ibili!

'LOTSABARIK'-ERA ETORRI

Herriko gazteei gonbida-pena egiten diegu *Lotsa barik* atalean parte hartzeri animatu. Deitu 943 71 25 11 telefonora edo, bestela, ARRASATE PRESSEK Otalora kalean daukan egoitzara etorri zuzenean.

Gaztetxeak hamaika urte bete ditu, eta badago zer ospatu

IKER BARANDIARAN

Arrasateko gaztetxeak hamaika urte bete ditu eta AGAKOkoek hainbat ekitaldi prestatzen dihardute apirilerako. Joan den zapatuan hasi zituzten ekitaldiak. Bertso bazkaria izan zen lehenengoa.

Arrasateko gaztetxeak hamaika urte bete ditu eta, egia esan, ez da zenbaki makala. Badirudi egoitza horretan ospatuko duten azkeneko urteurrena izango dela, baina gazteek etsi barik hainbat ekitaldi antolatzen hasi dira.

BERTSO BAZKARI DOTOREA

Hamaikagarren urteurrenoko ekitaldiak dotore hasteko, bertso bazkari arrakastatsua antolatu

AGAKOkoek ekitaldi mordo antolatu dituzte apirilerako, eta sorpresak izango dituzte

zuten joan den zapatuan. 85 lagunek pasta-entzaldada eta berakitzekin prestatutako oilasko goxoa jan zuten. Are gehiago, Sustrai Colina, Amets Arzallus, Iñaki Apalategi eta Anai Iturriagak bertsoak bota zituzten eta barre handiak egin zituzten gerturatukoek.



Joan den zapatuan, bertso bazkari arrakastatsua egin zuten gaztetxean.

Bestalde, bihar, Cuerno de Chivo, X-At eta Neu taldeek kontzertua emango dute. Domekan,

berriz, Gaztelako abertzaletasunari buruzko berbaldia. Gero, sorpresak egongo dira.

LOTSABARIK/ Haritz Zubiate

"Gazteriaren pasibotasuna lotsagarria da"

IKER BARANDIARAN

Haritzek ez zeukan *Lotsa Barik* atalean agertzeko gogo handirik, baina gazteak mugitzen ez direla esan ez dezagun, guregana etorri eta gustura erantzun zituen gure galdera lotsabakoak.

• Txikitan, zer izan gura zenuen?

Beste askoren moduan, futbolaria edo antzeko zerbait izan gura nuen. Diru asko irabazteko, futboleko jokatzeko, famatua izateko... gauza horiek guztiak. Gero, ez zait futbola hainbeste gustatzen. Saskibaloian jokatzeko ere ibili nintzen eta aspaldian esku-

baloian nabil oso gustura. Hala ere, ogibidea beste nonbaiten aurkitzeko asmoa daukat.

• Zelan ikusten duzu zeure burua hemendik 20 urtera?

Burusoil edo ile gutxirekin eta Arrasaten bizitzen. Seme-alabak auskalo edukiko ditudan, baina ez dute uste ezkonduko naizenik.

• Zein da, zure ustez, adin ideala?

Orain daukadana ondo dago... Arazo barik bizi naiz, gurasoen kontura...

• Bizitzan zeri ematen diozu lehenetsuna?

Lagunei eta familiari.

• Zerk arduratzen zaitu gehien?

Euskal Herrian dagoen egoe-

rak, gazteendako alternatiba faltak eta, batez ere, gazteek orokorrean duten pasibotasunak.

• Zerk ematen dizu lotsa?

Batez ere, gazte askoren pasibotasunak. Bestela, gauza askok ematen didate lotsa; adibidez, jendaurrean berba egiteak.

• Zure alde on bat?

Oso lasaia naiz.

• Eta alde txar bat?


Ikasketekin ez nabil oso fin.

• Zure gorputzeko atal gustukoena?

Eskumako eskuko atzamar txikia, berezia delako.

• Pertsona bat ezagutzean, zeri botatzen diozu begirada lehenengo?

Begiei; gero, hura ezagutu.



ADINA: 19 urte • IKASKETAK: Batxilergoko lehen maila • ZALETASUNAK: Kirola eta musika LIBURU BAT: Aldizkariak irakurtzen ditut
FILM BAT: 'El día de la bestia' • MUSIKA TALDEA: Hamlet • KIROL TALDEA: Eibar futbol taldea


EGUZKI GRAF
inprimategia
Industrialdea F-0-4
Tfnoa: 791844
Faxa: 792941
ARETXABAETA


BASATI
TABERNA
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
Tf. 943 711767

MADINA ZURAK
Aroztegia
• Olak
• Aglomeratuak
• Kontraxapatuak
• Tablexa
• Ateak
• Egurrezko leihoak
• Oin-inguruak
• Zangoak
• Aroztegiako osagarriak
Zarugalde, 38 • Tel.: 943 79 13 78

BEHEKOZENTRUTIK

Maite Mena Gallastegi

GAES ENTZUMEN ZENTRUE

XABIER URZELAI

Maitek Diseiñue eta Modie ikesi euen, baiñe lan hau proposatu eutzien, eta baiezkue emun euen. Lanien hasteko ikastaro batzuk egin biher izen zittuen Zaragozan eta Bartzelonan. Maitek urte eta erdi daroie Gaes Entzumen Zentruen lanien. Aste Santuko oporrak be edarto aprobetxauko zittuen, seguru.

Amets bat?

Ondo bizi izetie.

Eta amets txar bat?

Etxeko obrak barriro be egittie.

Egin dozun azken biajie?

Abuztuen, Gironara. (Ez da azkena izen).

Txartel horixe, zeñei?

Jente askok merezi dau.

Eta gorrixer?

Boleto ugeri dauket banaketa-ko: politikuei, esaterako.

Pelikula bat? Liburu bat?

Disko bat?

Chocolat / La herbolera / Flamenkue gustetan jat.

Drogak legalizauko zittukie?

Bai, duda barik.

Eta prostituziñue?

Hori be bai.

Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Bixek: lehenengo, txikiteue, eta gero, diskotekak.

Ze gustetan jatzu Mondraguetik?

Gauza asko. Hiri txikixe dala, eta hamengue nazenez, ba...

Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Etxebizitzen arazue. Barrixek merketu edo beste neurri batzuk hartu.

Eta lehendakari izengo bazitze?


Hasteko, ahalegindduko nitza-ke Euskal Herriko konfliktue konponketan. Eta gero...

Ezagutu dozun pertsona interesante bat?

Berezi-berezirik...

Eta ezagutu nahiko zeunke-ena?

Asko. Adibidez, bizirik balego, Camaron de la Isla.



"Jentiek ez dau onarketan txarto entzuten dauela. Ondokue konturaketan da"

Tranpan ibiltteketan norbaittekin, zeñekin?

İnokin be ez.

Telebisiñoko programa bat?

Bat bera be ez.

Eta irratikue?

Goixetan, Arrasate Irratixe entzuten dot.

Bizio bat?

Erretie.

Zertan gastauko zeunke dirue?

Erropatan.

Bizi izetera hiri batera juetekotan, nora?

Donostiara.

Zelan daki batek ez dauela ondo entzuten?

Telebisiñoko bolumena behin

"Alkate izengo banitz, etxebizitzen arazue konponketan ahalegindduko nitzake"

eta barriro jeisteko esaten dutzien. Hala eta be, asko kostetan da txarto entzuten dogule onarketie.

Hortan, ondokuek esanda etorten da jentie.

Bai, norbera ez da konturaketan, eta ondokuek bialketan dau.

Askotan, komeni da gortasun apur bat eukittie, ala?

Bai; edo ondo entzun, baiñe kasu gutxi egittie.

Politikoren bati komeni jako rebisiñoren bat egittie, ala?

Bai. Eta danek be bueltatxo bat emungo baleue, asko irabaziko geuke.

Ze entzungo zeuke gustora?

Euskal Herriko konfliktue konpondu egin dala.

NIREBIDAIAHURA/ Gorka Rubiales

Vienara (Austria) / 2001eko iraila ezker dago han

Bilbon Musika Irakasle ikasketak egin zituen, eta gero, Madrilerako bidea hartu zuen. Madrilen Musikologia ikasten urtebete egin eta gero, Erasmus-eko beka baten bidez kanpora joateko aukera suertatu zitzaion. Alemaniara joan gura zuen, baina Austria zen aukera bakarra, eta hara joan zen.

İrailean, ikasturte hasierarekin batera, Gorkak Vienarako bidea hartu zuen, eta hasiera nahiko gogorra izan zen: "Vienako jendea oso sistematikoa da. Bakoitzak berea dauka buruan, eta bestean arazoez, bost axola!". Gorkak hainbat anekdota izan zituen lehenengo egunetan: "Autobusa hartzeko txarteldegian galdera larregi egiteagatik, ederrak entzun behar izan nituen. Gero, kalean semaforo bat gorri pasatzeagatik, andre batek sekulakoak esan zizkidan, eta irakasle batekin neukan hitzordura minutu batzuk berandu iristeagatik, idazkariarekin ika-mika ederra izan nuen. Jakina, irakaslea ez zegoen ordurako". Denborarekin ohitu egiten dela dio Gorkak, eta denbora da, hain zuzen, alferrik galdu ez duena. Izan ere, Bratislavan, Pragan eta Italiako hainbat hiritan izan da Gorka.

Vienako hainbat eraikin benetan ikusgarriak dira, baina kaleko giroari dagokionez, ez da Gorkarendako hiri gomendagarriena. Hala ere, ohikoak ez diren hainbat ekin-tza egiteko aukerak eskaintzen ditu turistez betetako hiri hark: "Astean hirutan operara joaten gara. Gu zutik egoten gara opera ikusten, eta bi euro besterik ez dugu ordaintzen. Edozelan ere, Vienan kontuan izateko ekitaldiak izaten dira operak, eta vienarrak elegante-elegante joaten dira operara". Gorka Aste Santuan Arrasaten izan da, eta uztaiera arte Austriar izango da. Datorren urtean, nork daki.



"Austriako jendea oso itxia da, baina ohitu egin behar"

"Astean hirutan operara joaten gara, bi euro ordainduta"

XABIER URZELAI



Gorka, Vienako katedralean.

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

BITTORI
ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

ZUBIZARRETA
LANTEGIAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65

ZAHARREN ETXETIK



Aurre-erretiratuek eta alargunek pentsio duinagoak jasotzea aldarrikatzen dute.

ARRASATE PRESS

Aurre-erretiratuek Madrilen ere egingo dituzte aldarrikapenak

IKER BARANDIARAN

Debagoieneko Aurre-erretiratuen eta Pentsiodunen Elkarteak Madrilerako joko du apirilaren 18an, Espainiako Estatu-ko beste elkarte askorekin batera, euren eskubideak aldarrikatzera. 65 urte baino gazteagoak zirenean erretiratu zirenen eta alargunen pentsioen ordaina igotzea eskatuko dute Madrilen.

Aurre-erretiratuen eta alargunen pentsioak duinagoak izateko eskaria aspaldikoa da. Horregatik, 1999an, Debagoieneko Aurre-erretiratuen eta Pentsiodunen Elkarteak sortu zuten. Oñatin dute egoitza eta 180 bazkidek osatzen dute elkarte hori. Arrasaten, esaterako, hirurogei bazkide inguru daude, Bergaran hogeitatu eta gainerako gehienak oñatiarrak dira.

Madrilerako hiru aldarrikapen nagusi eramango dituzte: bata, aurre-erretiratuek parlamentuan eta giza foroetan ordezkaritza edukitzea; beste bat, aurre-erretiratuek hogeita hamabost urte-

an Gizarte Segurantzaren kotizatu izanez gero, 65 urte bete ondoren dagokien ehuneko ehuna jasotzea; eta azkenik, alargunek euren senarra zenaren soldataren ehuneko hirurogeita hamarra jasotzea.

Debagoieneko Aurre-erretiratuen eta Pentsiodunen Elkar-

Apirilaren 18an, Madrilerako

Debagoieneko Aurre-erretiratuen eta Pentsiodunen Elkarteak autobusak antolatuta ditu Madrilerako joateko. Egun horretan, manifestazioa egingo dute, aurre-erretiratuek eta alargunek pentsio duinagoak eskatzeko.

Izena emateko, deitu Juan Jose Guridiri (943 792497) edo Juan Antonio Iturbe (943 792624) elkarte partaideei.

teko Arrasateko arduradunek jakinarazi dutenez, hasieran herrian oso jende gutxi animatu zen elkarrean izena ematera. Gerora, berriz, jende gehiago jabetu da arazo horretaz, eta parte hartzea gorantz doa.

DUINTASUN KONTUA

Izan ere, gaur egun, aurre-erretiratuek direnak dagokienaren %60 eta %65 jasotzen dute, "zegokien garaia baino lehenago" erretiratu izanaren "zigorra" izango balitz bezala. Eta alargun askok, berriz, euren senarrek jasotzen zutenaren %45 besterik ez du jasotzen.

Debagoieneko Aurre-erretiratuen eta Pentsiodunen Elkarteak, Espainiako Estatu-ko beste elkarteek moduan, pentsio duinagoak eskatzen dituzte. 1999an, Eusko Jaurlaritzak euren eskarrei onespene osoa eman zien arren, Espainiako gobernuari dagokio euren eskaerak betetzea, eta oraindik ez die jaramonik egin. Aldarrikapen horiekin Madrilen birritan izan dira, eta Bilbon ere egin dituzte aldarrikapenak.

LABUR

1940ko kintoen emakumezkoen batzordeak bilkura egingo du apirilaren 20an

1940ko emakumezko kintoen batzordeak interesa dutenei datorren apirilaren 20an biltzeko deialdia egiten die. Interesatuok apirilaren 13a baino lehen eman beharko dute izena Aldabe tabernan (Batzokian), eta hamabost euro ordaindu. Egunean bertan, 13:00etan Joan Bataiatzailea Deunaren elizan meza izango dute. Gero, 14:00etan, bazkari ederra izango dute Aldabe tabernan.

Astero-astero ikastaro ugari izaten dituzte Uribarriko zaharren egoitzako kideek

Uribarriko zaharren egoitzan ez dira geldi egotekoak. Astelehen, ehoziak egiten dituzte. Martitzenetan, gakorratza egiten ikasten dute. Eguaztenetan, margo ikastaroa izaten dute. Eguenetan, ikastaroak alde batera utzi, eta berbaldiak izaten dituzte. Egubakoitzetan, berriz, eskulanean txanda izaten da. Horrez gainera, Iturripeko kiroldegian ariketa fisikoa egiten dute.

ZAHARREN AHOTIK

Jabier Salaberri

ERRETIRATUA

1932an jaio zen eta bost anai-arrebatan txikiena da. Hiru urte igaro ondoren, Uribarriko zaharren egoitzako presidentetza utzi du.

Ikasle ona zinen gaztetan?


Bueno, txarra ez, behintzat. Hiru urtetik zazpi urte artean Ospitale Zaharrean, mojetan, ikasten ibili nintzen. Gero, San Jose Ikastetxera jo nuen, biatoristenera. Eta hamalau urte nituela, Apendizen Eskolan hasi nintzen, Cerrajerako langileen semea izan barik. Salbuespenak egin zituzten orduan.

Gerra, oso txikia zinela bizi izan zenuen, ezta?

Gerra baino gehiago, gogoa daukat frankistek hiri garrantzitsuren bat hartzen zutenean kanpaiak jotzen zituztela eta gu eskolatik irtegin gela. Horrez gain, frankistaren baten hileta-elizkizuna egiten zenean, Musika Bandak jotzen zuen, eta gu harriduta gelditzen ginen.

Noiz hasi zinen lanean?

Apendizen Eskolan nabilela, Cerrajerako bulegoan



ordezkapen lana egiteko aukera izan nuen, eta gerora, han jarraitu nuen. Tartean, neurte kasa, Merkataritza Peritu ikasketak egin nituen. 58an, San Jose Kooperatiban sartu nintzen (gero Eroski izango zena) eta, bitxikeria gisa, Lankide Aurrezki Kutxako lehen idazkaria izan nintzen, oso denbora laburra. 60an, Libe Inarrarekin ezkondu nintzen. Zazpi seme-alaba eta bost iloba ditut. 63an, Ulgorrera joan nintzen, administratzailea, 62 urterekin erretiratu nintzen arte.

Duela hiru urte, Uribarriko egoitzan presidente hasi nintzen, orain utzi dudana arte.

ASESORIA ARRASATE

- Juridikoa
- Lan arloa
- Fiskala
- Bankinter finantza agentea

Erdiko kale, 32. 1 ezk • ARRASATE
Tel.: 943 79 01 47 Faxa: 943 79 73 00

HIES BERRI

Tel.: 943 79 26 99



ALDEDI

MARKO-JARTZEAK

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84



ARRASATE
Mikel Coto
Apirilaren 20an, 24 urte.
Zorionak, Mr. Coto!!! T.M.T.



ARRASATE
Ainhoa Garro
Apirilaren 5ean, 23 urte.
Zorionak, prexioxa!!! T.M.T.



ARRASATE
Iker Uribetxeberria
Apirilaren 16an, 24 urte.
Zorionak, nabarro!!! T.M.T.



ARRASATE
Iñigo Urtubi
Apirilaren 8an, 24 urte.
Zorionak, satelite!!! T.M.T.



ARRASATE
Andoni Barrutia
Apirilaren 18an, 24 urte.
Zorionak, Barrutia!!! T.M.T.



ARRASATE
Iñigo Agirre
Apirilaren 11n, 25 urte.
Zorionak, juergistio!!! T.M.T.



ARRASATE
Josu Errasti
Apirilaren 13an, 25 urte.
Zorionak, Erras!!! T.M.T.



ARRASATE
Nerea Petreñas
Apirilaren 10ean, 8 urte.
Zorionak! Familiaren eta lagunen partetik.



ARRASATE
Lorea Zubia
Apirilaren 9an, 20 urte.
Zorionak, potxola!!! Etxekoan partetik.



ARRASATE
Zigor Eguren
Apirilaren 14an, urtebetezeta. Zorionak, Aretxabale-tako lehengusuen partetik.




ARRASATE
Josune Eguren
Apirilaren 16an, urtebetezeta. Zorionak, Aretxabale-tako lehengusuen partetik.



ARRASATE
Asier Ibarrodo
Apirilaren 21ean, 21 urte.
Zorionak! Familiakoak.



ARRASATE
Maialen Gay
Martxoaren 27an, 5 urte.
Zorionak! Familiakoak.



ARRASATE
Ibai Arregi
Apirilaren 13an, 14 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Beatriz Nova
Apirilaren 13an, 18 urte.
Zorionak! Familiakoak.



ARRASATE
Olatz Bedia
Apirilaren 11n, 10 urte.
Zorionak! Familiakoak.



ARRASATE
Arkaitz Agirrezabal
Apirilaren 6an, 11 urte.
Familiaren partetik.



ARRASATE
Jone Arriolabengoa
Martxoaren 29an, 14 urte.
Zorionak, koadrilakoan partetik.



ARRASATE
Amets Pie de Hierro
Apirilaren 14an, 5 urte.
Zorionak, ama-puntakoaren partetik.



ARRASATE
Eneko Aspiazu
Apirilaren 10ean, 6 urte.
Zorionak! Jokin, Eli eta etxe-koak. Aupa Reala!



ARRASATE
Maite Carriet
Martxoaren 29an, 3 urte.
Zorionak! Familiakoak.



ARRASATE
Maite Balantzategi
Apirilaren 15ean, 11 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Lur Delgado
Apirilaren 15ean, 14 urte.
Zorionak! Familiakoak.



ARRASATE
Garazi Garitaonandia
Apirilaren 12an, 5 urte.
Zorionak! Joseba eta Marian aita-amak.



ARRASATE
Fertxu Rodríguez
Apirilaren 14an, urtebetezeta. Zorionak! Nerea, aita, ama, Leire, Iñaki eta...



ARRASATE
Soraia Iglesias
Apirilaren 15ean, urtebetezeta. Zorionak, amatxo! Ramon, Aitor eta Josu.



ARRASATE
Hodei Beitia
Apirilaren 16an, urtebetezeta. Zorionak! Aita, ama eta Oier. Oi!



ARRASATE
Jesus Beitia
Apirilaren 17an, urtebetezeta. Zorionak, ziklista! Familiako guztien partetik.



ARRASATE
Cesar Azkarate
Apirilaren 17an, urtebetezeta. Zorionak! Aitabxo, amatxo, Sergio, Larra eta Saio.



ARRASATE
Haika Aizpurua
Apirilaren 12an, 19 urte.
Zorionak! Txatxilikoak.



ARRASATE
Alaitz Altzola
Apirilaren 13an, 2 urte.
Zorionak! Familiaren partetik.



ARRASATE
Eva Romero
Apirilaren 11n, 25 urte.
Zorionak! Etxekoak, Txatxilikoak eta Umezaintzakoak.



ARRASATE
Miren Etxebarria
Apirilaren 3an, urtebetezeta. Zorionak! Umezaintzakoak.



ARRASATE
Kepa Urzelai
Apirilaren 11n, 4 urte. Zorionak! Umezaintzakoak.



ARRASATE
Macaria Serrano
Apirilaren 10ean, 82 urte. Urte askotarako! Familiakoak.



ARRASATE
Eva Romero
Apirilaren 11n, 25 urte. Zorionak! Umezaintzakoak.



ARRASATE
Bittor Bergaretxe
Apirilaren 12an, 60 urte. Zorionak! Familiakoak.

Adi!

Hurrengo zenbakian, apirilaren 13tik 26ra bitartekoan zorion agurrak argitaratuko ditugu.

Argazkiak martitzenera arte jasoko ditugu,

ARRASATE PRESSko egoitzan.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak

- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2002ko apirilaren 12a / 22. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizenziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com

Limitadoa erdibitu egin dute zerga arazoak konpontzeko

UBANE MADERA

Aramaioko Udalak eta Otxandiokoak Limitadoaren gaineko hitzarmena sinatu dute, behin-behinerako. Helburua da azken urteotan zergekin sortutako arazoak konpontzea. Horretarako, Limitadoak dituen 565 hektareako lurraldea Aramaio-ko eta Otxandioko udalen artean erdibitu dute.

Horrela, Limitadoaren 283,41 hektarea (%50,12) Otxandioko Udalarenak izango dira; eta gainerako 283,10 hektareak (%49,88) Aramaio-ko Udalarenak. Ondorioz, Limitadoko herritarrek banaketa horren arabera ordaindu beharko dituzte Ondasun Higiezinaren gaineko zergak; eta banaketa horren arabera izango dituzte Aramaio-ko zein Otxandioko Udalen Lurzoru eta Hiri Antola-

mendu Araubidearen eta errepideen eta bideen mantentze-lanen eta kontserbazioaren gaineko ustiapena.

BEHIN-BEHINERAKO

Esandako moduan, behin-behinerako hartutako erabakia da hori, hari eta Limitadoaren arazoak behin betiko konpondu arte.


Kontua da 1999. urtean Arartekoak Limitadoa Bizkaia eta Araba artean erdibitzea proposatu zuela. Aramaio-ko Udalak onartu egin zuen proposamena, baina Otxandiokoak ez zuen ezer egin. Ondorioz, ordutik hona, Limitadoko herritarrek arazoak izan dituzte zergak ordaintzeko, Aramaion zein Otxandion, bietan ordaintzea eskatzen zieten-eta. Hori dela eta, erabaki dute bi udalen artean lurralde hura erdibitzea eta zergen arazoak argitzea.

Edozelan ere, eta esandako moduan, oraindik Limitadoaren arazoak konpondu barik dago. XIII. edo XIV. mendea ezkerro datorren arazoak da. Otxandioko eta Aramaio-ko udalerrien artean dago lurralde hura, baina udalerririkopena ez dago behar bezala zehaztuta, eta 500-600 urteotan gatazka izan da, lurralde hori zeinena den erabakitzeko. Eta oraindik ere badirudi luze joko duela.



GOITB

99an, Arartekoak Limitadoa erdibitzea proposatu zuen; Otxandiok ez zuen onartu.



Barajuengo pilotalekua, berri-berri

Aste Santuko jaiegunak aprobetxatuz, Barajuengo pilotalekuan konpontze lanak egiten ibili dira, auzolanean. Pilotalekua goitik behera margotu dute, eta alanbrea ere ipini diote. Oraingo astean, azken ukituak ematen jardun dute, baina eguraldi eskasaren ondorioz, ez dute egin beharreko guztia bukatu. Barajuengo alkate Jose Mari Etxabek adierazi digunez, ateri bada, oraingo asteburuan bukatuko dituzte lan guztiak. 1.800 euro pasatxoko inbertsioa egin dute pilotalekuan. Zati bat Udalak eman du eta litekeena da falta dena Diputazioak ematea.

HERRITARRENHITZA/ Arantza Ibabe • Langilea

Egin dezagun bertako euskara

Sarritan, uste izan dugu edo uste eragin digute, guk darabilgun euskara ez dela dotorea, eta baita zakar samarra dela ere; zoritxarrez, askotan entzun izan dugu hori.

Eta, nire ustez, oraindik ere horren ustetan gaude, bestela ez nizueke datorren artikulu hau idatziko.

Aramaioko kaleetan zehar nabilela, hara non entzuten diedan bertako gurasoei "bihar larunbata da" edo "igandean joango gara Donostiara". Eta nik neure buruari esaten diot: "Zeer? Hau bai penagarria! Bertakoak izanik eta euren euskara baztertzan?". Zergatik

izango ote den hori galdetzen diot neure buruari behin eta berriro; eskoletan batua erakusten dietelako akaso, ala "chic"-agoa delako ala... eurek jakingo dute.

Antiglobalizazioa bere fruiturik onenak ematen dabilen mundu... honetan, jatorri eta herri koloreak defendatu eta kontserbatu gura dugun sasoi honetan, ez al da euskara batuaz berba egin behar hori, euskara bera ere



"Euskalkiek ez dute euskara aberasten laguntzen?"

globalizatzea? Ez al duzue uste, guk, bertakoak garenok, geure euskaran, sikiera, berba egiten jarraitu behar dugunik?

"Zapatue" eta "domeka", "larunbata" eta "igandea" beharrean erabili; "moduan" edota "legetxe", "bezala" beharrean...

Euskalkiek ez al dute euskara aberasten laguntzen?

Ez ote dugu, bada, pentsatzen segituko geure euskara

besteak baino zatarragoa dela, ezta? Ez horixe! Hori ez da horrela! Sekula santan ez!

Gure Euskal Herri osoan dauden euskalki diferentiek, horixe bera dira, diferentiek, eta kito; ez bata bestea baino ederragoa.

Mesedez, ez dezagun euskara globalizatu, bakoitzak egin beza bere euskara.

Kanta herriko batek "ez al dakizu euskara dela euskaldun egiten gaituena", dio. Eta nik zera diot, ez al dakizue norberaren euskarak egiten gaituela zumaiar, elorrixoar, napar, zuberotar eta guri geureak, aramaixoar?

LABUR

Familia bakarrak hartuko du euskara ikaslea

Arexola auzoko Jauregi baserriak egin du euskara ikasleak etxean hartzeko eskaintza bakarra. Iaz ere, baserri horrek bakarrik parte hartu zuen ikasleak hartzeko eskaintzan, eta aurten, errepikatzea erabaki dute. Hortaz, pertsona bat hartuko dute Jauregi baserrian, uztail-abuztu inguruan. Pertsona horrek giro euskaldunean euskara ikasi eta erabiltzeko aukera izango du, eta trukean, ikaslea hartu duen familiak 492,83 euro jasoko ditu.

TELEFONOJAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zulako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
12:00	12:15	13:00
15:20	15:35	16:20
20:30	20:45	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:30	09:15	09:30
13:10	13:50	14:05
	17:00	17:15
19:30	20:15	20:30

OHARRAK

SAGARDOGILEEN EGUNA

Hil honen bukaeran, 28an, hain justu ere, San Prudentzio eguna da, Arabako patroia, Domeka denez, jaieguna astelehenera pasatuko dute, hortaz, Aramaion ere jai izango da. Eta iaz hasitako bideari eutsiz, aurten ere, Sagardogileen Eguna ospatuko dute San Prudentzio egunean Aramaion. Txirritola Euskara Elkarteak hasi da dagoeneko egun hori antolatzeko lanak egiten.

IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA

Maiatzaren 5era arteko epea egongo da Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Gaineko Zerga borondatez ordaintzeko. Epealdi hori pasatuta, ordaindu bako zergak %20ko gainkarguarekin kobratuko dituzte. Vital Kutxan ordaindu behar da zerga. Edozelan ere, helbideratuta dauden ordainagiriak datorren astelehenean, hilaren 15ean, kobratuko dituzte.

ARETO FUTBOLA

Aurtengo Liga bukatu eta gero, orain, bigarren faseari ekingo diote Bañera taldeko mutil eta neska taldeek. Kadete mailako mutilek liga txiki bat jokatu dute, lau partidura. Gauzak horrela, bihar, zapatua, Aramaion jokatu dute Presentacion de Maria taldearen kontra, 11:30ean. Neskek, berriz, kanporaketa zuzenak jokatu dituzte, bi partidura. Bihar, Antonio Fornier kiroldegian Baro-Caloren kontra jokatu dute, 12:00etan.

ZINEMA

Ósmosis Jones filma, 17:00etan, kultura etxean.

GIZARTEA

Bertsolari Txapelketako lehenengo finalerdia bihar kultura etxean

Aurreneko saioak jokatu eta gero, bihar, zapatua, Arabako Bertsolari Txapelketako lehenengo finalerdia jokatu da Aramaio kultura etxean, 19:00etatik aurrera. Sei bertsolarik parte hartuko dute kanporaketan, tartean Manex Agirre eta Andere Arriolabengoa aramaiorrek. Aurrez aurre, Rikardo González de Durana, Zigor Enbeita, Asier Otañendi eta Ruben Sánchez bertsolariek izango dituzte.

Honakoa egin beharko dute: agurra, ofizioka nagusian hiruna bertso, ofizioka txikian beste hiruna, puntua emanda bertso bat, hitza emanda bete bat, kartzelako gaiari bertso bi eta bukerako agurra. Guztira, hamar bertso puntuagarri. Gero, apirilaren 11n, beste sei bertsolarik bigarren finalurrekoa jokatu dute. Bi finalurrekoetatik sei bertsolari pasatuko dira aurrera, maiatzan jokatu den finalera. Hortaz, zorte on herrikoei!



HERRIKO AUZOETAN

AREXOLA

Elizate horren historia Arexola sendiaren historiarekin lotuta dago erabat. Bailarako jauntxoaren etxearen ondoren, Arexolatarren leinu etxea da, Aramaio historian, garrantzitsuen. Gurañan dagoen "Garay" etxearekin batera, Ahaide Nagusia moduan aipatu izan dute beti. Bestalde, adituen ustez, "Arexola" izena "haritzaren olatik" dator. Baina herritarrek Aixola esaten diote, "aizeola" hitzetik eratorrita. "Aizeolak" burdina urtzeko haizea erabiltzen zuten olak dira. Lehengaietatik gertu egoten ziren kokatuta, burdinetik edo ikatz begetalen zainetatik gertu. Eta terrenoaren aldapak aprobetxatzen zituzten burdina urtzeko beharrezkoak diren temperatura handiak lortzeko. Mendiolak (mendiko olak) "aizeolak" izaten ziren. Julio Caro Barojaren esanetan, "burdin minerala eta ikatza diametro handiko zuhaitz baten enborrean sartzen zituzten; lehenago enborrean barrualdean buztina eta bestelako substantzia mineralak sartzen zituzten". Eta uste dutenez, Arexola izena hortik etor daiteke.

"Aramaioko ibarraren iragana eta oraina" (J.M. Elejalde)

BOTEPRONTOAN/ Jose Luis Medina · Salgoko auzo-alkatea

"Salgon bizpahiru etxe gehiago egiten badituzte, guretako askoz hobeto"

Aramaioko lau auzo bakarrik falta zaizkigu bisitatzeko. Salgo da horietako bat, eta Jose Luis Medina da hango alkatea. Besteak beste, esan digu auzoan oso ondo bizi direla eta arbola politikak daudela.

Lehenengo aldiz alkate?

Bai, eta berriro tokatuz gero... ikusiko dugu, igual bai. Hemen ez dago baserri askorik, eta bozketa bidez aukeratzen dugu auzoko alkatea.

Zelakoa da Salgo?

Kalearen ondoan bizi gara; auzo moduan berezi samarra da. Kale goienetik gora hartuta ikusten diren sei baserriek osatzen dute Salgo. Momentu honetan, lau familia bizi gara Salgo auzoan. Horrez gainera, beste etxe bat ere egiten dabilta... Uste dut datozen urteotan poliki-poliki handituz joango dela. Lehen, hemendik, baserrietatik, jende asko Mondragoera eta inguruetara hasi zen joaten, hau da, kalera. Joan den aspaldian, berriz, alderantzizko joera nabari da, eta nire ustez, oso gogor, gainera. Hemengo auzoetan ikusten da etxebizitza asko egiten dabilzala. Dagoen arazoa lurra da, alegia, jendeak ez duela lurrik saltzen.



"Aurtengo sagardoa oraindik ez dago edateko moduan. Maiatzetik aurrera egongo da ondo"

Jendea etortzea ona da zuendako?

Bizpahiru etxe gehiago egiten badituzte, guretako hobeto, askoz hobeto.

Bestela, gaur egun, Aramaio-ko auzo txikiena da Salgo?

Izango da, bai. Eta bestelako auzo batzuetan dauden arazoak ez daude Salgon: ume txikiak eskolara joateko, kaletik gertu dagoenez... Horrez gainera, uste dut oso leku polita dela.

Zer eskatuko zenioke Udalari auzoarendako?

Azkeneko urteotan lan dezente egin dituzte: bideak konpondu, gasa eta ura sartu...

Baduzue jairik?

Zalantzan nago. Orain kanposantua dagoen lekuan eliza bat egon zen lehen, San Martin zen santua. Gero, kalera eramane zuten, baina guk "apur bat" ospatzen dugu San Martin

eguna, azaroan.

Istorioren bat?

Lehen, bazen dorre bat, eta esaten dute Anbotoko sorgina Anbototik dorrera etortzen zela... Liburuetan kontatzen dute hori.

Fruitu goxoak ere ei daude...

Hamaika urte-edo izango dira gure sagarrekin Arrasaten lehenengo saria irabazten.

Baina lan handia ematen du, bereziki, aurretik prestatzeak. Ez da egun batean Arrasatera, Elgoibarrera edo Bergarara joan eta kito. Lan handia egin behar da lehenago, eta askotan ez du merezi. Oso polita da, niri asko gustatzen zait. Urte

askoan joan izan gara, baina uste dut utzi egin behar dugula.

Eta zelan lortzen dituzu horrelako sagarrak?

Lur ona, norberari gustatu egin behar... Niri asko gustatzen zait; ordu mordo sartzen dut: egunero-egunero ordu bi, ordu bi eta erdi...

Zenbat sagarrondo dituzu? Mila eta ehun bat-edo.

Sagardoa ere egiten ei duzue... Apur bat, sobratzen diren sagarrekin. Zerbait saldu egiten dugu eta gainerakoa guretako, gehiena etxerako izaten da. Orain gutxi sartu dugu, eta, maiatzetik aurrera izango da edateko gertu.

"Niretako auzoko gauzarik politena fruta-arbolak dira; baina oro har, leku berezia da Salgo"

ERRETRATUZAHARRA

Eskolako
atarian
ateratakoa

Aprendizen Eskolan -edo Arte eta Ofizioen Eskolan- oroitzapenerako honako argazki hau ateratu zuten 1927ko maiatzean. Honako hauek agertzen dira argazkian, goian, ezkerretik hasita: Karmelo Madinabeitia, ezezaguna, Antonio Armengou (maisua), Bitor Bedia, Emilio Inda, Amador Portillo eta Paulo Zumelaga.

Hurrengo ilaran, ezkerretik hasita, honakoak daude: Jesus Heriz, *Trinkete*, Gregorio Sampedro, Francisco González Kiko, Egidazu, Pagoaga Aranguren eta Jesus Amozarrain.

Hirugarren ilarara salto eginuz, honakoak daude, ezkerretik hasita: Pedro Bolinaga, Altuna, Donato Arregi, Santos Sologaitza *Txatua*, Jesus Letona, Martin Iturbe, Mateo Murua eta Norberto Jauregibarria.

Beherago joango gara segidan. Zutik, bakarrik dagoen mutikotik hasi eta haren ondokoekin segituko dugu, ezkerretik hasita: Pedro Bitoria, Sebastian Etxebarria *Murri*, Juan Mari Sampedro eta Juan Mari Otadui.



Haien atzean daudenekin segituko dugu, ezkerretik hasita: Agustín Arregi *Bueno*, Juan Eraña *Kaxo*, Jose Mari Uranga, Ricardo Gorosabel, Joakin Garmendia *Re-Re*, Joseba Sampedro, Labajos, Garate, Jesus Elgoro, Lazaro Berezibar, Eustakio Guridi, Jabier Arregi *Kataide* eta Gabino Bitoria.

Eta lehenengo ilarari begiratuta, lurrean eserita daudenak dira, ezkerretik hasita: Eskudero, Paco Orobenago, Manolo Amozarrain eta Jazinto Elortza. Belauniko daudenak: Agapito Arana *Txako*, Felipe Elortza eta Pedro Zumelaga. Eta zutik, ezkerretik hasita daudenak honakoak dira: Migel Mentxaka, Fakundo Sampedro, Juan

Azkoaga, Luis Heriz, Juanito Mondragon, ezezaguna, Juárez, Joxe Amozarrain, Luxio Uriona, Timo Zubizarreta eta Zezilio Altuna *Txaparro*.

Argazkia: Pedro Zumelaga
Berriemailea: Pedro Zumelaga
Urtea: 1927ko maiatza

NOLAALDATUDIRENGAUZAK


Mondragoe
zaintzen duen
auzoa

Altamira izena bikain dator kio Arrasateko erdialdea zaintzen duen auzoari. Hango bizilagunek egunero gora eta behera ibili behar izaten dute. Hala ere, herriko ikuspegi politena daukate ordaintan. Egun, Altamirara igotzeko aldapa lehengoa modukoa da, baina errepidea, behintzat, hobetu egin dute. Eskailera daude, baina igogailu bat ere...



≈ 1970

Badirudi orain dela hogeitun urte Altamira auzoa urrunago zegoela, erdibidean ez zegoen-eta eraikinik.



2002

Egun, ordea, hainbat etxebizitza egin dituzte eta Uarkape Udal Pilotalekuak bizkarra ematen dio auzoari. Orain, hurrago dagoela dirudi.

CE **ERRASTI KRISTALDEGIA**

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak**

Olarte kalea, 47 beheka Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25



**KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK**

Meatzerreka, 5 bis • Apdo. 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxe: 943 - 79 78 14
ARRASATE



**Gambrinus
garagardotegia**

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziatua. 40-42
Tel.: 943 79 53 32

Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Uarkape, 18 behe. ezk. ☎ 943 77 13 34

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Maalako Errabala, 23-2.A ☎ 943 77 05 57

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 ☎ 943 77 00 40

FISIOTERAPIA ETA GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETxea Errehabilitazio Zentrua Garibai Etorb. 6B ☎ 943 77 03 96
- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ☎ 943 77 14 72
- MARIA GARDOKI LEGORBURU. ☎ 670 52 19 34

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Quiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) ... ☎ 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ☎ 943 79 71 90
- GIPUZKOAKO ODONTOLOGIA ESPEZIALITATEEN ZENTRUA. Iturriotz, 7 Bis ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5. ☎ 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3- 1.-B ☎ 943 77 12 63

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 ☎ 943 79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ☎ 943 79 29 95

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPIEDIA Kontzeziño, 2 ☎ 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ☎ 943 79 44 22

OSTEOPATIA

- NEREA BENGUA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 ☎ 659 58 66 89

PSIKOLOGIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ☎ 943 79 88 16

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ☎ 943 79 44 22

OSASUN GIDARAKO IZENEMATEA: 943 71 23 91

GRUPO **RKUZ**

1950-2002



Arkauz zure etxea da.



Araba etorbidea 20 • Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABAETA



Araba Etorbidea 5 • Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Mitarte 3 • Tel./Faxa: 943 77 04 55 **FAGOR**



Asuncion, 1 • Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABAETA

